

2008ko apirila

70. zenbakia




Lur-langileen kooperatibak Baserrian doguz sustraiak

Mihiluze saioko irabazleak – Zamudio eta Derioko jaiak – Sondikako pintura tailerra



XAKER

kirol zerbitzuak S.L.



*kirol instalazioen kudeaketa: ustiapena, garbiketa eta mantentzea –
kirol erakusketak –
goi mailako pilota taldeen entrenamenduak –
entrenatzaileentzako eta adituentzako kurtsoak eta kongresuak –
kirol elkarten kudeaketa: kluba, federazioak –
eskolaz kanpoko jarduerak –
udalekuak –*

Basaras auzoa, 4
48195 Larrabetzu BIZKAIA
944 558 276 / 944 558 143
652 710 532
faxes: 944 558 276
www.xakerkirola.com





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Joseba Butron, Fernando Larrondo, Oihana Astobieta, Ixone Urrutikoetxea, Belen Gana, Iñaki Bilbao, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikaren sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

32 Unai Garitagoitia



14 Zamudioko Pazko jaiak



12 Arrate Gaztelu eta Kattalin Bárcena



18 Sondikako pintura tailerra



26 Derioko jaiak



AURKIBIDEA

4Eritxia 5Laburrak eta albisteak
11Behargintza 12Gaztea eta... Arrate Gaztelu eta
Kattalin Bárcena 14Zamudioko Pazko jaiak
18Sondikako pintura tailerra 26Derioko jaiak 32Unai
Garitagoitia, txorizalea 34Txorierriko bertsolaritza esko-
la 36Txorierritarrak munduan 37Teknologia
38Musika 39Argazki zaharra 40Sukaldaritza
41Denborapasa 42Agenda

Goiri '78 S. L.
Servicio Oficial

POL. IZARZA
Tfn.: 94 453 25 15
94 453 39 31
48150 SONDICA (Bizkaia)

ATARRABI

Errementari, 11 - 48150 Sondika
Tfn.: 944 531 928

FONTANERIA DOBARAN

Berriztatze - lanak:

- Etxebizitzak
- Suetsak
- Bainugelak

94 453 3860
658 75 9084
Mizina, 4 - 48150 SONDICA



JUAN LUIS GOIKOETXEA
(Idazlea)

Pedro Bilbao Arrietakoaren ahotik jaso dut esaldi hori, Amerikara ardi-jagole joan zenarenetik. Pedro iza-tez, euskalduna da, euskaraduna, globalizazio aroan ere, doala doan lekura unibertsoa euskal bilakatzen duena; hizkuntza-ren kanpaiari euskal hotsa, berbotsa ateratzen diona.

Gaur egun, kanpaien aldekoak nahiz aurkakoak dira gure artean. Derion bizi den Urليا elizara hurreratu da, abade parrokoari kanpaiak isilarazteko eskatuz,

Idaho: airean joan eta behea jo

ezin egin duela lorik-eta. Ez daki, hurrean, bera Derioratu aurretik, bazela euskararen kanpaia.

Sandiaren eta Berendiaren seme-alaba hamazortzi urtekoak erdaraz bizi dira, euskaraz ikasi arren. Gurasoen kanpaia egunero dabil ekinean saminez errepikaturik: "Egizue euskaraz, ba!". Gazteok, ordea, gor, krudel guraso euskaldunei erdal kanpai hotsak jotzen ze, "Mihin bako arrana, sasiak jan!" dio esaera zaharrak. Lehenago ere, Angeluseko kanpaiak entzutean, txapela erantzirik sinestedunak errezoa, aldameneko astoak, ordea, ederrak belarriak, baina ahoa belarrera.

Aspaldiko urteetan, bestalde, herriaren ahoa kanpaiak izan ohi ziren. Landetako ardiaren edo basabehien arranaren nagusia dorreko kanpaia zen. Zoli-zoli entzun zitekeen kilometroetara haren din-dana. Gure egunotan, ordea, jo egiten dira Txori Herrietako kanpaiak, baina eurek baino dezi-belio handiagoko hotsa sortzen dute beste

tramankulu eta makinatzar askok.

Eskerrak Txorierrin **AIKOR!** kanpai handia entzuten dugula. Jabi Agirrek "jubilaroa" berba polita sorturik 69. Aikorreko kanpaiak zabaldu du herririk herri, beste hamaikatxo albiste interesgarriekin batera.

Sarri, aro digital honetan, urruneko kanpaiak entzuten ditugu hurrago geureak baino, Txinakoak edo Kontxintxinakoak. Hala ere, tinko baieztatuko dugu: "Hizkuntza bakoitzak bere barruan du herri horren muin eta esentzia, esango genuke. Hizkuntzaz aparte ba omen dira beste berezitasun batzuk; baina, nire ustez, euskara adinakorik ez dugu". (Jesus Altuna antropologoak 59. Administrazioa Euskaraz aldizkarian).

Arrietako Pedro artzainak euskal kultura zabaltzen du, euskaraz pentsatzen du -ingelese ere jakinik-, kanpaiari euskal hotsa ateratzen dio. Zelan, bestela burutara etorri: *Idaho, airean joan eta behea jo?*

Zelan pentsatu, halan azentua

Berba egiten dugunean, aldi berean pentsatu egiten dugu. Bueno, baten batzuek pentsatu barik egiten dute berba, brausta-brausta; besteren batzuk, pentsatzen dutenaren kontrakoa esateko; beste batzuek... Kontua da berbaz paretan garenean pentsamendua ere hor dabilela, lanean. Ahoa eta burua, biak batera.

Baina, zelan pentsatzen dugu? Hots, euskaldunok, elebidunak garenez, zelan pentsatzen dugu, euskaraz ala erdaraz? Ala bietara? Seguru asko, bietara moldatzen da gure burua, gu konturatu barik. Bueno, batzuetan, albokoak, entzuten daudenak bai konturatzen dira

zelan pentsatzen dugun, igarri egiten da-eta: erdarakada galantak, euskarakadak, bien nahaste-borrastea...

Herrien izenak esaten ditugunean ere igarri egin liteke zelan pentsatu dugun, zein izan den gure erreferentzia. Bai, ze gure herrien izen gehienek euskaraz azentu bat daukate, eta erdaraz beste bat. Horregatik, euskaraz pentsatzen duenak holangoak esango ditu: *Lezamákoa* (ez, *Lezámakoa*), *Zamudíon* (ez, *Zamúdion*), *Mundakára* (ez, *Mundákara*), *Larrabetzútik* (ez, *Larrabétzutik*), *Gernikán* (ez, *Gerníkan*)...

Herrien izenetan, euskaraz, azentua atzerantz egoten da; gaztelaniaz, kon-



JOSEBA BUTRON
(Irakaslea eta euskaltzain urgazlea)

trara. Berba arruntetan, oster, euskaraz aurrerago egoten da (*telébista*, *abértzalea*, *ordénadorea*, *txakólina*, *autóbusa*...) eta erdaraz atzerago. Horregatik entzuten da ze "Euskeraz badaki, bai; baina ez dau ondo egiten". Azentua izan liteke. Edo pentsatzeko erak (erdaraz eta euskaraz) nahastuta dabilzala, dantzan.

GALAISIA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Etengabeko ordutegia

Sabin Arana 1-3. SONDIA

TXORIERRI Inmobiliaria

ZUIDEGANDIN GEITUEN DORTZEN INMOBILIARIA
AHHHEKULARTZA TASAZIOA
ALOKATZAK ENKUALIDATZEAK
SALEROSKETAK
SOLITUEN BILKADUEN AGENTZIA

Barto Aljara, 2-SONTREA TEXKALA
Tel./Fax: 94 451 12 82 - 94 471 18 11
E-mail: txori@txoriinmobiliaria.com

Sabin Askolizaga
Asesoru Arrieta
Minaiz
609 47 57 46

Consulting S.L.
Santesteban, 5-1
48961 48968

Tel: 94 4531807
Fax: 94 4536027

Mining, 6. floor
48150 Sestica-Bizkaia



5.000 lagun inguru batu dira Larrabetzuko Txakolinaren Egunean



Apirilaren 6an, domekaz, Txakolinaren Eguna izan zan Larrabetzun. Aurten Txakolinaren Egunaren zazpigarren edizinoa bete da, eta urira 5.000 pertsona inguru batu ziran. Zifra horrek adierazten dauan legez, azoka guztiz finkatuta dago. Izan be, gero eta lagun gehiago batzen ditu urterik urte, eta egutegiko hitzordurik inportanteenetarikoa bihurtu da.

Aurtengo edizinoan Txorierriko 11 txakolin-egilek hartu eben parte eta, orotara, 1.100 litro txakolin saldu ziran. Baserriko produktuak be jarri ziran ikusgai, eta 32 labedun bildots erre ebezan. Peñagarikano eta Amuriza bertsolariek saioa eskaini eben.

Ciriaco Dañobeitia Larrabetzuko txakolin-egilerik zaharrena da, eta berak egin eban brindisa. Beragaz batera 'Tiko' eta Iraizoz Athleticen jokalaria eta Toti Martinez de Lezea idazleak egin eben topa. Horretarako, Aitabitxi upeltegiko txakolina erabili eben. Ekitaldia Josu Loroño kazetariak zuzendu eban.

Txorierriko 200 ume matrikulatu dira D ereduan

2008-2009 ikasturtean izena emateko epea apirilaren 11n bukatu zen. Orotara, 206 ume matrikulatu dira Txorierriko herri ikastetxeetan: 60 Sondikan, 63 Derion, 36 Zamudion, 27 Lezaman eta 21 Larrabetzun. 2007-2008 ikasturtean 252 umek eman zuten izena. Herri ikastetxeetan D eredia baino ez dago.

Beste alde batetik, Mankomunitateak '1+1=bi' kanpaina zabaldu zuen maiatzean. Kanpaina hori bi eta hiru urteko umeen gurasoei egon da zuzenduta, eta horiek seme-alabak D ereduan matrikulatzera animatzea izan du helburu. Haurrek eredu horretan ikasteak dakartzan onurak azaldu zaizkie foileto baten bidez, eta umeei puzzle bana agindu zaie.

Herri ikastetxeetako bi urteko gelek 175 ume hartuko dituzte 2008-2009 ikasturtean: 43 Sondikan, 55 Derion, 34 Zamudion, 25 Lezaman eta 18 Larrabetzun. Era berean, datorren ikasturtean eskolara lehenengo aldiz joango diren 20 umek eman dute izena hiru urteko gelan: 11 Sondikan, 5 Derion, 2 Zamudion eta 2 Lezaman.

Arku-tiroa antolatu dute Zamudion

Gezi-Bide Derioko klubak arku-tiroaren erakustaldia egingo du maiatzaren 4an Zamudion. Ekitaldia Torrelarragoiti industrialdea eta Oxinaga auzoa lotzen dituen bidean izango da eta ibilbide horretan zehar hiru dimentsioko animaliak jarriko dituzte diana moduan. Era berean, uharka txiki bat egingo dute, bertan ahateak ipintzeko.

Arku-tiroan federatuta dauden arklari guztiek har dezakete parte; hala ere, diana bat jarriko dute nahi duenak saikera egin dezan. Proba goizeko 9etan hasiko da, eta helburu bi ditu: alde batetik, arklariak entrenamendua egitea Espainiako Txapelketarako; eta, beste alde batetik, kirol hau herritarrei hurbiltzea. Espainiako Txapelketa maiatzaren 9etan izango da Salamancan, eta han Joseba Alzibar zamudioztarra arituko da lehian.

TXAKOLINA
LUISARBE

11% Vol. 75 cl.

Garainoliza, 87
Tf: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
Denominación de Origen

Victor Gamboa Garabietak bildu, prestatu eta botilazatua
LEZAMA SPUN
N.R.E. 48/40150/R

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, I
Tfno: 94 453 33 28 - Fax: 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

pro audio
ESPECIALISTAS EN SONIDO

Txorierriko bidea 15
48150 Sondika
Bizkaia Tfno: 94 453 33 25

www.proaudio.es
juventud@proaudio.es

Completado con la mayoría de los teléfonos Bluetooth. Aparatos inalámbricos y cableados. Puntos de venta de altavoces y música.

229 €

HARATEGIA * URDALEGIA
VICTOR
ELABORACION ARTESANA

Okela geuk produzitzen duguz; egiten ditugu odolosteak, borroak, txistorak, solomak...

Plater aurrekozinatuak

Oskari Kalea 17 • Tel. 94 453 16 17
48150 SONDIKA (BIZKAIA)

Goi-Alde dantza taldea Marmariseko jaialdian izango da



Testua: Jon Goikouria

Erandioko Landeako Goi-Alde dantza taldeak Marmaris hiriko (Turkia) udaberriko jaialdian hartuko du parte, Astrabuduako Trabudu eta Erandioko Uztargi dantza taldeekin batera. Musikari eta dantzarien artean 50 lagun abiatuko dira Turkiara.

Bidaia egiteko aukera joan den urteko azaroan sortu zen. Mikel Arieta-araunabeña Erandioko alkateak Sedat Kirt Marmariseko udal ordezkaria ezagutu zuen Estatu Batuetan, bertan egun batzuk pasatzen ari zela. Harreman ona sortu zen gizon bien artean, eta turkiarrak gonbidapena luzatu zion alkateari, Erandioko hiru taldeek euren na-

zioarteko udaberriko jaialdian parte hartzeko.

Bidaia maiatzaren 15etik 19ra bitartean egingo dute. "Kultura-trukez ari gara" adierazi du Sorkunde Goikouria Goi-Alde dantza taldearen presidenteak. Gastuak Erandioko Udalak ordainduko ditu. "Taldeen Euskal Herriko folklorea ezaguteraziko dute Turkian, eta hango jai-giroan ere hartuko dute parte", aipatu du Santiago Neira kultura zinegotziak. Hilaren 16an, 17an eta 18an kalejirak eta kontzertuak izango dira Marmarisen; egitarau osoa www.marmaris-festival.com webgunean jarri dute ikusgai.



Lopezek eta Olabarrietak Udaberri Pilota Txapelketa irabazi dute kadete mailan

Apirilaren 11n, barikuz, Udaberri Pilota Txapelketaren finalak izan ziren Galdakaoko frontoian. Adrian Lopez eta Aimar Olabarrieta Zamudioko Pilota Eskolakoek txapelketa irabazi zuten kadete A mailan. Txorierritarak Galdakaoko bikote baten kontra aritu ziren, eta hasiera batean partida oso berdinduta egon bazen ere, 22-12 gaitziteza lortu zuten bertoko pilotariak.



LARRABETZU
✆ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

BARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeke berezitasuna: bertoko okela
Iturrikotxe, 7
Tlfnoa: 94 455 89 41
LARRABETZU

GAZTELEKU TABERNA

LARRABETZU
Andra Mari, 6 - Tel 94 455 88 97


Miguel Angel Lekue, garrainaria
LARRABETZU
656 786 744 94 455 80 20

ZURAS
Estetika eta masajea
Aita Patxi Ugaldé, 14 boltoa
Tel.: 94 455 72 01 - 48 195 LARRABETZU (Bizkaia)


Oguiza
Hortz Klinikak
Klinika berria, berria, berria...
Angulori ongarritza: 1 ● 48 195 LARRABETZU ● Telefonoa: 94 455 88 90


ASADOR ARAMENDI
EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZAK
Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa: 94 452 11 58
ZAMUDIO

BARRERA DEBENATUTA
TIRO EREMATZAK
IZAN EZIN

PROHIBIDO EL FUEGO
EXCEPTO USUARIOS
CAMPO DE TIRO



BIDE GORRI
CAFE-BAR

Era eskolako pinlucak - Plater kombinatuak
80000etik hasita

Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel. 94 452 26 75

500 dantzari inguru batu dira Derion Lainomendiren urteurrena ospatzeko



Lainomendi Derioko dantza taldeak 18 urte bete ditu aurten, eta urteurrena apirilaren 19an eta 20an ospatu dute. Taldeko txistulariek hasiera eman zioten zapatuari, eta goiz osoan umeen jolasak egin ziren. Herriko



tabernetatik trikitiaz lagundurik txikiteoan ibili ostean, bazkaria egin zuten pilotalekuan. Bazkarian, 200 lagun baino gehiago izan ziren eta arrastian erromeria egin zen Arizgoiti taldearen eskutik.

Domekan, dantza agerraldia izan zen institutuan. Ekitaldian Txorierriko eta Uribe Kostako 10 taldek hartu zuten parte Lainomendirekin batera: Hiru Bat, Gure Ohiturak, Kurutze, Goraintzaileak, Agurra, Goialde, Sasi Eskola, Loiuko Dantza Taldea, Uztargi eta Trabudu. Pilotalekuan 500 dantzari inguru aritu ziren. Besteak beste, Udaberri dantza egin zen. Jose Luis Orbe dantzaren asmatzailea egon zen ekitaldian, eta dantza-aren nondik norakoak azaldu zizkion publikoari.

Gazte euskaldunak behar dira hainbat zerbitzu emateko

Erandio eta Leioako Udaletako eta Txorierriko Mankomunitateko euskara zerbitzuek "Berdinean euskaraz" kanpaina jarri zuten martxoan 2005ean. Harrezkero urtero egin dute.

Kanpaina honen helburua da ume-zaintzaile, kirol eta aisialdiko begirale eta aurkezle jarduteko eta eskola partikularrak emateko jende euskalduna hartzea. Euskara zerbitzuek osatutako lan-poltsan 218 lagun zeuden 2006an, baina jende gehiago behar da, aipatutako zerbitzuak eskatzen dituztenak asko direlako. Ondorioz, ezin zaie eskaera guztiei erantzun. Datozen hilabeteetan beste bultzada bat emango zaio kanpainari, eta Mankomunitatea gazte euskaldunak erakartzen ahalginduko da, udan eskariak gora egingo duela uste duelako. Gazteek, gainera, diru apur bat irabazteko aukera ederra izango dute.

Lan-poltsan sartu nahi dutenek curriculum-ama eraman behar dute Mankomunitatera, eta han emango dieten eskaera-orria bete. Eskaera-orria www.e-txorierrri.com webgunean ere eskura daiteke, baina, bete ondoren, Mankomunitatean aurkeztu beharko da.



BODEGAS TIERRAS DE OCARTE

Bodegas Ortu-Ondo, S.A.

Ugaldegaren Pabilloa III Ind., P-4
Tolosa, 94 452 15 90 Fax: 94 452 36 90
48170 ZAMUDIO
e-mail: ortuondo@andalucia.net

CARRROCERIAS TXORIERRI

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Terrontaragoldi Pol. Vial sar C-10, Nave B5 1 48160 Zamudio BIZKAYA
T/Fax: 94 460 29 03

Garbiketak Ekotxori

Uztarriko 4. Zuzendua, 1
48170 ZAMUDIO BIZKAYA

Telefonoak:
630 71 25 63
94 453 33 91

Fax:
94 452 33 93

cianoplan S.A.

Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Telefonoa: 94 431 71 37
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.



Espaloiak konponduko ditue Lezaman, mugikortasuna hobetzeko

Lezamako Udalak herritarren mugikortasuna erraztu eta hobetu gura dau. Horretarako, kalean eta eraikin publikoetan dagozan oztopo arkitektonikoak kentzeko asmoa dauka eta Udaleko Plaza egoitzeko lanei ekingo deustso. Espaloi batzuetan ere lanak egingo dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lezamako Udalak hitzarmen bat sinatu dabe. Hitzarmen horren bitartez, lanak egingo dira Erandio eta Erletxe bitarteko BI-737 errepidean. Lezamatik pasatzen dan errepide zatia Udalaren esku geratuko da hemendik aurrera. Beste alde batetik, Foru Aldundia proiektu bat aztertzen dabil Kurtze auzoa eta herriko erdigunea espaloi baten bitartez lotzeko eskoako bidetik. Kurtzetik Sagarduira ezkerreko bidetik doan espaloia be konpontzea aztertzen dabilz.

Mikel Zarate plazatik kiroldegira doan espaloia luzatu egingo da eta udalaxe osteko urbanizazinoko oinbideak handitu. Herriko harategirako sarrera be hobetu egingo da eta oraingo maila bikoitza kendu. Lan horreek guztiak irisgarri-


tasun planaren barruan dagoz.

Edukiontzi egokituak

Beste alde batetik, orain dala gitxi uri hondakin solidoen edukiontzi berezi bi jarri dira Lezaman, elbarrituek erraz erabili dagiezan. Edukiontzi horreetako bat Kurtzen ipini dabe, eta bestea herriaren erdialdean; udalaxearen atzeko parkearen ondoan hain zuzen be. Edukiontziek eskuz zabaltzeko sistema dabe, gurgil-aulkian dabilzanek edo elbarritasunen bat dabenek zabaltzeko modua euki dagien.



GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 455 90 06

OBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze Integralak
Gremioen koordinazioa

1. lehenedokari 1. obra eta enpresaren, 2. beheak
48170 ZAMUDIO

Tel: 94 406 04 01 - Fax: 94 406 04 06
Móvil: 615 742 788



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 87 89 48170 ZAMUDIO (Dikela)



OPTIKA IKUSLAN

Oiz kalea, 3
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Edifer Solana plaza, 5 - Txabalduena Cerkina, 7. Solaina, 1. Oryana - 48011 BILBAO
Telefono 94 459 80 70 Fax 94 459 82 72
Zamudioko Kiroldegia Telefonoa 94 452 21 20 - Fax 94 452 30 74

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubiceta

Osasun-entzuz & Hortz-entzuz
HORTZ-PLANTEAK - OSTUDONTZIA-ENTZUZ
IMPLANTAZIOAK

Dr. Arriola kalea, 11 1. ed. 48011 BILBAO Telefonoa 94 441 6373
Urte plaza, 1 48170 ZAMUDIO Telefonoa 94 452 13 70

ZAMUDIO-DEIARIKO LURLANGILEEN ETXEA
CORPUS-HITZA, GORRITXO & HONADEK-ETXEA / ZAMUDIO-DEIARIKO
Baserri-tarren zerbitzua

Sant Mami auzoa, 1
Tel.: 94 451 10 06
Fax: 94 451 10 06
48170 ZAMUDIO (Dikela)



SANTI MAMI
ALKATZARITZA

Nerea Pedraza euzk. 307
0007 CANADADA ZAMUDIO SERIO

San Mami, 3 - 48015
ZAMUDIO - BILBAO

Telefonoa: 94 454 57 77
Fax: 94 454 57 73
Fax: 94 454 57 73



Xhelazz rap abeslaria

Hip-hop-ak hartuko du Derio

Maiatzaren 10ean, zapatuz, Derioko II. Hip-hop Jaialdia izango da Almazene kalean, Arte Urbano taldeak antolatuta. Jaialdiari arratsaldeko 6etan emango diote hasiera, eta bertan 16 taldek hartuko dute parte. Taldeok hauexek dira: Casper, Pirkel, Dolce Rima, TGV, Breakers, Kok, Markina, Bitxos Raros K, Mufasa King, 312, 121 Crew, 359, Atrapao, Xhelazz, Boker eta Bilbo Scrach. Talde bakoitzak ordu erdian joko du, Xhelazz rap-abeslariak izan ezik. Azken hori jaialdiaren kartel-burua izango da, eta ordubetea arituko da eszenatokiaren gainean. Talde guztiak Txorierri eta Bilbo

ingurukoak dira.

Antolatzaileek azaldu digutenaren arabera, jaialdiak helburu bikoitza du. Alde batetik, euren musika ezagutarazteko aukera eman nahi diete hip-hop munduan hasi berri diren taldeei. "Xhelazz-en eskutik egingo dute. Hori izen handiko rap-abeslaria da estatu mailan". Eta beste alde batetik, hip-hop kultura hurbildu nahi diete herritarrei. "Bandalismoa eta hip-hop nahasten dira askotan, eta mugimendu hau benetan zertan datzan jendeak jakitea nahi dugu". Eszenatoki ondoan panel bat jarriko dute eta graffitiak margotuko dituzte han.

Larrabetzuarrrek San Isidro ospatuko dute

San Isidro Txorierriko herri askotan egiten den ospakizuna da. Urtero bezala, Larrabetzun ere ospatuko dute maiatzaren 15ean. Goizeko 10:30etik aurrera hainbat ekitaldi izango dituzte urian: kalejira, azoka, bazkaria, karta txapelketak eta umeentzako herri kirolak, besteak beste.

Beharrak hasiko dira Lezamako areto-futboleko zelaian

Udalak lan hauek egingo ditu Lezamako areto-futboleko zelaian: drainatze sistema konpontzea, belar artifiziala eta ate-sareak aldatzea. Beharrotan 43.699 euro jarriko dituzte, eta hilabete eta erdiren buruan amaituta egotea espero dute.

Udalak kirol zerbitzurik onenak eskaini nahi dizkie lezamarrei, eta, areto-futboleko zelaian egingo diren berrikuntza lanez gainera, beste lan batzuk eginda dauzka dagoeneko. Esaterako, pilotalekuko ureztatze hornikuntza konpondu eta kantsa margotu da. Beste instalazio batzuen erabilera eta egoera aztertuko dituzte; skate-pista, euren artean.

Bizkargi Eguna

Maiatzaren 4an, domekaz, Bizkargi Eguna ospatuko da. Egun osoan zehar hainbat ekintza egongo dira mendi tontorrean: trikitilariak, jai-giroa, txosnak... Eguerdiko 13:00etan ekitaldia politikoa izango da, eta omenaldia ere egingo diete preso ohiei. Ekitaldian txalapartariak eta bertsolariak hartuko dute parte.

Beste alde batetik, arratsaldeko 19:30ean manifestazioa eta ekitaldi politikoa egingo dituzte Larrabetzun. Horren ostean, erromeria egongo da Haitzama taldearen eskutik.



ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, knadermaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 Tel. / Faxa: 94 453 16 77
49190 SONDIKA (Bizkaia)



GARAIOLTZA, S.A.

PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

Lan egiteko prestatzea, Behargintza Txorierriren bidez

Behargintza Txorierri Lanerako Prestakuntzako ikastaro sorta zabala eskaini die Mankomunitateko langabetuei. Joan den urteko azarotik gaur egun arte, 170 ikasle-tik gora, emakumezko zein gizonezko, hartu dute parte ikastaroetan, bertoko zein Bizkaiko lan-merkatuko eskaera egokitzeke.



JOSÉ MIGUEL GOIKOETXEA
44 urte. Segurtasuneko jagolea ikastaroa

1. Behargintzak berak proposatu zidan ikastaroa egitea, eta ondo iruditu zitzaidan.
2. Tira, ikastaroa Behargintza Txorierriren bitartez egin zen, baina ikasketa horiek irakasteko baimen berezia behar da, eta Bilboko akademia batean eman zen.
3. Oro har, oso ondo deritzot. Hainbat praktika egin dugu bide-segurtasunaz, lehen sorospenez...
4. Bai, noski; uste dut ondo aprobetxatzen duenak lanpostua lortuko duela.



AMAIA ETXEBARRÍA MEÑIKA,
39 urte. Geriatria eta Alzheimerreko laguntzaile ikastaroa

1. Horrelako zentro bat irekiko dute nire herrian, eta interesgarria iruditu zait bertan lan egiteko aukera izatea.
2. Ikastaroa Behargintza Txorierriren egiteko aukeraren berri Udaletxean izan nuen.
3. Oso hezigarria. Lehenengo eta behin, teoria ikasi dugu hiru hilabete eta erdian, eta gero, praktikak egin ditugu 180 orduz. Praktikak Erandioko Residencial Loramen-di egoitzan egin ditut.
4. Tira, hasteko, ordezko-gaia naiz.

Horien erakusgarri...

Ikastaroa egun duten batzuei galde-tu diegu:

1. *Zergatik hautatu duzu espezialitate hori?*
2. *Zergatik aukeratu duzu Behargintza Txorierri zure burua prestatzeko?*
3. *Zer deritzozu ikastaroa-ri?*
4. *Uste al duzu baliagarria izango duzula lana aurkitzeko?*



CHANTAL AKOUA OPONG,
19 urte. Kutxa-saltzaile ikastaroa

1. Lana aurkitzeko. Hona ailegatu nintzenezan ikasteari utzi behar izan nion.
2. Behargintzatik hurbil bizi naiz. Ikastaro hori ematen zutela jakin, eta izena eman nuen.
3. Oso interesgarria. Asko ikasi dut. Bi hilabeteetan praktikak egin ditut Bilboko Zazpi Ka-leetako jantzi-denda batean.
4. Bai, uste dut ikastaroari esker lana aurkitu-ko dudala, baina orain gaztelania hobetu be-har dut.



OLGA IÑARRA,
44 urte. Teleoperadore ikastaroa

1. Lanaz aldatzeko.
2. Ikastaroak ematen dituelako, eta etxetik hurbil dudalako.
3. Ondo. Ona izan da.
4. Izan ere, lanean nago.

● Martxan jarri diren ikastaro-ak

- Orga jasotzaileen maneia eta Biltegien Kudeaketa
- Eraikuntza Metalikoa eta Soldadura
- Berokuntza eta Aire Girotua
- Eraberritzean espezialista
- Ile-apainketa eta Estetika
- Nominak, Gizarte-aseguruak eta Mekanografia
- Aukera-berdintasunerako agentea
- Ingurumen-kudeaketa

● Praktikak dituzten ikastaroak

- E Gidabaimena lortzea
- Geriatriako laguntzailea
- Geriatria eta Alzheimerreko laguntzailea
- Praktikak bukatu dituzten ikastaroak
- Teleoperadorea
- Kutxa-Saltzailea
- Segurtasuneko jagolea



94 453 63 70
Txorierri Etorbidea 46
Berreteaga Poligonoa 13A
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Arrate Gaztelu eta Kattalin Barcena, *Mihiluze* saioaren irabazleak

“Oso ondo moldatu gara alkarregaz”



Aste Santuan gaztetxoei zuzendutako saio berezia egin eben *Mihiluze* ETBko programaren arduradunek. Saioa Larrabetzuko Arrate Gazteluk eta Kattalin Barcenak irabazi eben, eta saritzat MP4 bana eta Eurodisneyra bidaia emon deutsee. Hamaika urteko neskatilak poz-pozik azaldu jakuz.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Zelan animatu zinien saioan parte hartze-ra?

Arrate: Telebista izugarri gustatzen jaku, baita holango saiotan parte hartzea be. Irargarkia telebistan ikusi neban, eta lagun bati deitzea proposatu neutsan. Baina lotsa zala-eta ezetz erantzun eustan, eta Kattalini esan neutsan orduan. Gabonetako saioan parte hartzeko deitu neban, baina grabatuta egoan eta *casting*-a Aste Santuko saiorako egiteko esan euskuen.

Kattalin: Nahiko urduri ibili ginan, baina

casting-a egin euskuenak oso jatorrak ziran, eta lasaitu ginan. *Casting*-a gaintitu genduala esateko deitu ginduezanean, halan esan neutsan Arrateri: “M hizkiz hasten dan saiotik deitu gaitue” Eta oihuka hasi zan: “Mihiluze!”. Egundoko poza hartu genduan.

Buru-belarri hasiko zinien prestatzen.

A: ‘Imintzioka’ proba batez be prestatzeko esan euskuen, eta Kattalin mimika egiten oso trebea danez, berak prestatu eban hori. Nik ‘Potokumeak’ proba prestatu neban,

baina ez jakun tokatu. ‘Imintzioka’ eta ‘Erogilifikoak’ egin behar izan genduzan.

Zelan finalean?

K: Kanporaketa saioan baino lasaiago egon ginan, baina irabazteko aukera genduala ikusita, urduri jarri ginan barriro. Dana dala, finala kanporaketa saioa baino errazago irabazi genduan, izan be, aurka euki genduan talde bat gure adinekoa bazan be, beste taldea gaztetxoagoa zan. Eta erraza zan azken horreei irabaztea.

Zein izan da probarik errazena?

A: Kattalinentzat, ‘Tribuaren berbak’; eta niretzat, ‘Bizkor-bizkor’. Baina biontzat, ‘Esamesak’. Arin asmatzen genduzan mezuak.

Eta zailena?

K: ‘Zer da zer’. Musikak urduri jartzen zaitu eta guztiak isil-isilik dagoz platoon. Ganera, hainbat aukera emoten deutsuez galderari erantzuteko, eta zalantzan zagoz... Baina dana asmatu genduan.

“Ez ginan ados jartzen erantzunagaz proba baten, baina ondo atera zan azkenean”

Zelango bikotea izan zarie?

A eta K: Oso ondo moldatu gara alkarregaz. Batak trebetasun haundia eban proba batzuetarako; eta besteak, beste probetarako. Gaizkiulertua izan genduan proba baten, ez ginan ados jartzen erantzunagaz, baina ondo atera zan azkenean.

Eta kamaragaz, ondo moldatu zarie?

A eta K: Bai. Suerteia izan genduan eta saioa oso arin grabatu genduan. Besteek behin eta barriro errepikatu behar izan ebezan hartualdiak.

Noiz Eurodisneyra?

A eta K: Ekainean! Familia osoarentzako bidaia da, eta hara joateko irrikitan gagoz. Jentea animatu behar da halako saioetan parte hartzen. Nahiz eta *casting*-a gaintitu ez, oso ondo pasatzen da, eta aktoreak-eta ikusten dozuz. Guk jente asko ezagutu dogu, eta lagunak egin doguz.

INGELESA
(Candideak eta besteak)
FRANTZESA
TOKERA
EUSKARA
GASTELUJA

EUSKALA LAGUNTZA
(BETARRIA, KORTA, ENKUTRIK...)
ERIKHARRITZAKI IKASTARITAK
MILIA GUTIAK
ORDUTEGI MALGUAK



Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@foc.org
Bazterdialak: 144

Pentsu
naturalak

Etxebizitzak Zamudioko erdigunean



1, 2, 3 eta 4 logela dituzten etxebizitzak • Duplex
Merkataritzako lokalak • Garajeak eta trastelekuak • Zamudioko erdigunean



• Saltokia: Pango Kalea, Zamudio
Ordutegia: martitzenez eta eguenetan, 9:00tik 13:00era

languntzaileak

BBVA



94 452 31 76
94 679 31 42

SAETXE
urbanizaciones

Pazko jaiek hasiera emango diote Txorierriko jai egutegiari

Aurtengo Pazko jaiek gustu ona utziko digute ahoan: ekitaldi gastronomikoak, musika, kalejirak, txapelketak, auto lasterketak... Zamudioko jaiak urteko lehenengo jaiak izaten dira Txorierriin, datozen hilabeteetan izango dugunaren aurrerapena.

Mojinos-en lotsagabekeria

Jaien antolatzaileek ez dute zalantzarik: Mojinos Escozíos-en kontzertua ekitaldirik erakargarriena izango da, ziur asko. Rock taldeak *Pa pito el mío* azken lana aurkeztuko du Zamudion, eta errepasoa ere egingo die 12 urteko ibilbidean konposatutako abesti arrakastatsueni. Mojinos Escozíos taldeko kideek gaur egun pil-pilean dauden gaiak jorratzen dituzte euren abestietan eta horretarako, lotsagabekeria eta umo-rea erabil-

tzen dituzte.

Beste alde batetik, Xabi Aburruzaga trikitilariaren musika emanaldia izango da domekan. *Bizkaiko Trikitixa* diskoa plazaratu zuen abenduan, eta hura zamudioztarraren bakarkako lehenengo lana da. Musikan hasiberriek ere lekua izango dute aurtengo Pazko jaietan. Eszenatokira Txorierriko talde gazte hauek igoko dira barikuan: Deadly, Piedra en Mano eta Auskalo Non.



Kintopekoen idi probak

Probalekuan probetan inoiz parte hartu ez duten idiak ikusteko aukera edukiko dugu. Idi-probak Lagun Probazaleak taldeak antolatu ditu, eta parte-hartzaileak hauek izango dira: Zarraga (Erandio), Guillermo Marbueyes (Kantabria), Zumeltzu (Zamudio), eta Clemente López (Kantabria), martitzenean; Juan Luís Bilbao (Leioa), Federico Hormaetxe (Fruiz), Villanueva (Kantabria); eta Fermín Santamaria (Kantabria), eguaztenean; eta Bikarregi (Erandio), Cotarelo (Kantabria), eta Avelina Vior (Kantabria), eguenean.



ZURE BIDAIA-AGENTZIA

VIAJES BIDAIAK **NUEVOS HORIZONTES**

TALLER B. LNJ 6. 48170 ZAMUDIO BIZKAIA
T: 94 406 04 33 / FAX: 94 002 21 20 zamudio@viajesnuevoshorizontes.net

Gestión Zamudio **Aholkularitza Fiskala**

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Gorbela, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tlfnoa: 94 452 21 41 Faxa: 94 452 21 42
www.gestion/zamudio.com / gestion/zamudio@gestion/zamudio.com

Bar Crazy Guitar

Plaza Lehendakari Aguirre Plaza, 2
ZAMUDIO 48170 Bizkaia
Tel.: 94 60 18 378

BAKE - EDER
Zure taberna

Nekazari Kalea, 1
Tel. 944 520 567
Mobila 635 733 149
48170 ZAMUDIO

Gora Zamudioko Pazko jaiak!

Parte hartu
gure jaietan



Jaiak
euskaraz bizi!



César López Guerra
Telefono: 94 452 09 05
Mobila: 605 727 375

Gorbeia kalea, 7- Iorja
48170, ZAMUDIO-Bizkaia

CAFETERIA CENTURION

Espezialitateak:
gozari eta pintxoak

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
Telefonoa 94 452 10 49 - Zamudio

JUSTERRAK TABERNA

/kaserotik 1'000, /AMUJIO/
94 406 90 27

ETXEAN GURE DOGUZ

Eguneko menua
Asteburuetan kalzolak
Afariak (aldez aurretik eskatuta)



LOHITZUN
gatzelagile

Leizaola Lehendakari plaza, 3
48170 Zamudio
gatzelagile eta gatzelagileak

CB
Peluqueria
Ana Belén
estetika - solariuma

Atzeratuak - karga
tel: 94 452 09 05
alaba 94 452 1700 (Bilbona)



**TOLDOS
TXORIERRI**

TOLDOS E. GOYOAGA

Torrearragoiti Ind. P2
48170 ZAMUDIO
Tel: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44

Gasolindegia ondoan

- Lona industrialak
- Sareak
- Eguzki-ohialak
- Alokatzeko lonak



Jai-egitaraua

- **Apirilaren 29an, 30ean eta maiatzaren 1ean, martitzena, eguaztena eta eguna**

20:30: Kintopekoen idi probak, Lagun Probazaleak taldeak antolatuta. Sarrera doan, 2.000 kiloko harria

- **Maiatzaren 9an, barikua. Sabino Arana plazan**

19:30: Txupinazoa eta gozokiak

19:45: Kalejira, trikitilari, txistulari eta buruhandiekin

21:00: Perretxiko jana

23:00: Kontzertuak: Deadly, Piedra en Mano, Auskalo Non eta Luhartz

- **Maiatzaren 10ean, zapatua. Sukalki Eguna**

Auto klasikoaren kontzentrazioa goizean, herri osoan zehar

09:00: Sukalki Txapelketaren hasiera, Bidekoetxe parkean

11:00: Umeentzako jokoak

11:30: Kalejira

14:00: Sukalki Txapelketaren sari banaketa

17:00: Moto txikien lasterketa

17:30: Erdizka laueta taldea

20:30: Koralak, San Martin elizan

San Antonio (Iralabarri)

Lirain Txiki (Gorliz)

Zamudioko Kamara Korala

23:00: Kontzertuak: Enaz, Mojinos Escosios eta DJ

- **Maiatzaren 11an, domeka**

11:00: Meza nagusia

Pilota partidak, frontoian

11:45: Kalejira

17:30: Dantzak, Hirubat taldearen eskutik

19:30: Musika emanaldia: Xabi Aburrizaga

- **Maiatzaren 12an, astelehena**

12:00: Meza nagusia

12:30: Kopaua, elizpean

16:30: Mus eta Briska Txapelketa, Adintsuen Etxean

Maiatzaren 18an, domeka

10:00: Zamudioko V. Slaloma

Auto klasikoaren kontzentrazioa eta slaloma

Motorzaleek badute pozik egoteko arrazoirik, izan ere, Racing elkarteak auto klasikoaren kontzentrazioa antolatu du zapatarako. Ekitaldian 30 auto inguruk hartuko dute parte, eta bueltatxo ere emango dute herri-tik, ikusleek eurekin goza dezaten. Bazkaldu ostean, Loizaga dorreraino (Galdames) joango dira, han ikusgai jarritako autoak ikustera.

Zapatu arrastian moto txikien lasterketa egingo dute. Proba hori amateurrentzat da. Aparkaleku berrian zirkuitu bat atonduko dute eta parte-hartzaileek hiru manga osatu beharko dituzte. Mangen artean quad-ak egongo dira gaztetxoentzat.

Azkenik, eta jai egitarautik kanpo, slaloma egingo dute hilerri ondoko zelaian.

Aurten proba horren bosgarren edizioa egingo da eta, aurreko urteetako datuak kontuan harturik, 40 bat parte-hartzaile biltzea espero dute antolatzaileek. Proba puntuagarria izango da Euskadiko Zirkuiturako.



Sukalki Eguna, Lapiko Eguna

Txapelketa goizeko 9etan hasiko da ofizialki; hala ere, parte-hartzaileek 08:00etatik hartu ahaliko dute lekua Torrelarragoiti industrialdeko zelaian.

Gisatua butanoa erabilia egin beharko da eta hura parte-hartzaileek eramango dute. Barrutietako hesiak, berriz, antolatzaileek jarriko dituzte.

Izena ematea txapelketa egunean bertan egingo da goizeko 9etatik 10ak bitartean, eta epaimahaikoak 13:30ak inguruan hasiko dira jatekoak probatzen. Sariak 14:00etan emango dituzte: 150 euro, lehenengo sailkatuarentzat; 100 euro, bigarren sailkatuarentzat; eta 50 euro, hirugarren sailkatuarentzat.



Restaurante

Restaurante JANA-JATETxea

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

torrelarragoiti ind. 17 /
48110 / ZAMUDIO (31,100km) /

telefonoa 94 452 33 26
fax/telefono 94 452 06 64

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARBUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIDIA: DURANGON
E-mail: recupraharribilbo@euskalnet.net

LANTZERIA:
Kumea Industrialdia, zig. 4 48186 I PZAMA
telefonoa 94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Incorpena, 2 48108 MUNGIA
telefonoa 94 674 33 40

Gu ere zuekin jaietan



94 645 90 15 · www.sukia.com

“Guztiok dugu pintatzeko gaitasuna”

Orain 15 urte jarri zen martxan, eta orduan inork ez zuen uste hain jendetsua izango zela. Orain, 100 ikasle inguru doaz pintura tailerrera Sondikan. Parte hartu nahi baduzue, irailean eman dezakezue izena Udaletxean. Eta otoitz egin, leku mugatuta baitago.

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Manga estiloko koadro batekin dabil buru-belarri Argiñe. Etxekoandrea da eta manga ez dator bat bere itxurarekin. “Lehen irudi serioak margotzen nituen, baina gauza berriak egin nahi nituen. Semearen komikiak ikusi eta orain margotzen nabilen irudia aukeratu nuen, oso koloretsua baita”. Argiñe bezalako 100 ikasle inguru biltzen dira arratsaldero Sondikako I. Kultura Aretoan pintura munduan lehenengo urratsak egiteko. Edo azkenekoak, lanak “goimailakoak” baitira, Izaskun Ibarretxe irakasleak dioenez.

Gaur egun zortzi multzotan banatzen dira ikasleak, eta gehienez 14 lagun egoten dira klase bakoitzean. Umeek zein helduek osatutako taldeak dira. Ikastaroa hasiberrientzat izan arren, maila desberdinak dituzte ikasleak. Horregatik, irakaskuntza

erabat pertsonalizatua da. “Kolorea, marrazketa eta teknikak ditugu mintzagai eta guztientzako azalpen orokorrak botatzen badizkiet ere, bakoitzaren zalantzak argitzen ditut gero”.

Nola edo hala, ikasle guztiek betetzen dituzte etapak, eta ikasturte amaieran edozein teknikatan koadroren bat pintatzea dute helburu. “Eurek aukeratzen dute zer margotu (bai gaia, bai teknika), eta horren arabera nik aholkuak ematen dizkiet. Ez zait gustatzen ikasleen lanak birlantzea; nahiago dut argibideak eman eta eurek euren kabuz egitea”, adierazi du Izaskunek. Ikastaroa San Joan jaietarako bukatuko da eta orduan erakusketa erraldoia egingo dute pilotalekuan, urtero legez. Ikasle bakoitzak lan bi aurkezteko aukera du bertan.

Ikasi, arauak apurtzeko

Pintura ikastaroa oso arrakastatsua da. Hainbeste arrakasta du, ezen irailean, epea irekitzen denean, batek baino gehiagok



kanpoan gelditu beharra izango duen. Ez da harritzekoa, beraz, ikasleak klasera gogoz joatea. Eta pintatzeko gaitasuna baino garrantzitsuagoa gogoia da, irakaslearen iritziz. “Guztiok dugu margotzeko trebetasuna; landu egin behar da, hala ere. Arte oso librea dela esaten da, baina araez beteta dago. Nik hau esaten dut: arau guztiak ikasi eta, gero, apur itzazu”.

Ildo horri jarraiturik, Izaskunek artearen eta hizkuntza ikastearen arteko konparazioa egiten du. “Hasiera batean asko ikasten da, baina gero aurrera egiten ez du-





zula ematen du. Ez da egia; kontua da ikasitakoa ez dela hain nabarmena. Eta bat-batean beste aurrerapauso ikargarri bat egiten da. Orduan gauza berriak egiten hasten dira: neurri handiko irudiak... Izugarri gustatzen zait gauza berriak egitea, eta esperimentatza animatzen ditut ikasleak. Eta gauza modernoak egiten dituzte, e!”.

Maisuak esan eta ikasleek egin. Eduardo 53 urteko tren gidaria da. Berak ere gauza berriak egitea du atsegin. Biluzik dagoen andre baten izara du esku artean. Izugarri erlaxatzen du pintatzeak, eta gaztetan “pintura ikasi behar izan” zuela uste du. Gauza bera du buruan 17 urteko Leirek, klaseko gazteena. Sei urte zituela hasi zen margotzen, eta laster Arte Ederrak ikasteko asmoa du. Oraingoz, badu nahiko lan lamia baten inguruko tximeleten hegoak lantzen. Adinak eta ogibideak asko dira ikasleen artean; grina, ordea, bakarra da: pintatzen ikastea.





Ipar Uribeko bertsolari txapelketako finala 2008

www.eskuatxapela.biz









**maiatzaren 17an
18:00etan**

Aretako (Getxo)
Andres Isasi
musika eskolan

zuk ere baduzu opari hauetako bat jasotzeko aukera
Aikor!lagun egin zaitez



Vs.





saskibaloira
eroaten zaitu



Iurbentia Bilbo Basketen eskutik, sarrera bi
24. jardunaldia 05/09/2008 (Bizkaia Arena, BCC)

...eta gogoratu opari hauek lortzeko aukera ere baduzula

BILBAO BBK LIVE -
jataldirako sarrera bi,
Eguri eta Gautxori
tabernen eskutik

MASAJE erlaxatzailea, -
Arrateren eskutik

Xabi Aburrutzagaren -
BIZKAIO TRIKITXA diska

Chinua Achebe idazlearen -
GAINBEHERA DATOR DENA
liburua

Xakearren eskutik sarrera bi



Pilota jaialdi profesionala

maiatzaren 25ean, Derio pilotalekuan, 18:00etan

10



9







Pirritx eta Porrotxen Eskerrik asko ikuskizuna

maiatzaren 25ean, zinemaleku hiridogan, 18:00

Lagatzuren eskutik, zortzi sarrera

Baserritik bizi izanda be bizi

Nekazaritzako kooperatiba txikiek eboluzionatu, eta apurka-apurka garai barrietara egokitu baino beste erremediorik ez dabe izan. Antxina ganaduzainek eta nekazariak alkarri laguntzeko balio eben guneak ziran, eta gaur egun esparru zabalagotara zabaldu behar izan dabe jarduerara. Horren adibidea Txorierriko kooperatibak doguz.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Juan Barrena, Loiu

Baserri mundua krisian dagoala aspal-ditik dakigun gauzea da; ez da kontu barria inorentzat. Baserri guztietan behiak, idiak, txahalak... egozan lehen, eta orain oso gitxi dira bigantxa bat-edo dabenek. Zenbakiei erreparatzen badeutsegu, barriz, errealitate ezberdina dogu: antxina beste buru dagoz gaur egun; hori bai, gehienak

ustiapen haundietan batzen dira.

Datozan belaunaldiak erreleboa hartzea ezinbestekoa da lehenengo sektoreak bizirauteko, baina abereek eta ortuak dedikazio handia eskatzen dabe, eta, ganera, baserriko beharrak ez dau bizimodua ziurtatzen. Horren ondorioz, gazteek nahiago dabe behar egin lantegietan edo bulegoe-

tan.

Laguntzak dagoz instituzioen aldetik; halanda be, gakoa galdera honeetan dago: nahikoak dira?, benetako konponbideak dira? Juan Barrena Loiuko nekazari eta abeltzainen kooperatibaren presidentek argi dau ezetz. "Oraindiño ez deust inork esan dirulaguntzei esker lasaia goa bizi danik. Dana dala, baserritarra autonomo izatea lortu behar dogula uste dot, eta instituzioek eta legeek, gu ito beharrean, bideak zabaldu beharko leukiez horretarako". Barrrenak kasu bi emon deuskuz adibidetzat: bata, bakotxari bere ahalmen eta esfortzua- ren arabera ekoizten ixtea; eta bestea, plaza- roa erosten dan bendejea momentuan ordaintzea nekazariari, dendariak salduko dauan ala ez itxaron barik. "Horreek moduko beste neurri batzuk be hartu ezker, lagun gehiago animatuko ziran baserrian lan egiten, beharbada".

Krisiaren eragina

Nekazaritzako sektorearen krisiak eragin zuzena dau kooperatibetan, eta horrek eskaintza zabaldu behar izan dabe beste arlo batzuetara. Ganaduentzako pentsuez aparte, milaka artikulua eskaintzen deuskue: burdindegiko gauzak, zapatak, olio, arda, landareentzako produktuak, haziak, katu zein txakurrentzako jana, hesi

Larrondoko Ikastetxea
ESPERANZA ALHAMA
Lanbide Heziketa

Zikloetarako surretz izena ematea: ekainaren 2tik 13ra •
Matrikulak: ekainaren 30etik uztailaren 4ra •
Ateak zabaltzeko eguna: martitzaren 7an eta 8an, 16:00etatik 19:00etara •

Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: ealhamal@sarenet.es - Informazioa: 94 471 01 51

Heziketa zikloak: erdi mailakoa eta goi mailakoa

Erdi mailakoa

- Ekipo eta instalazio elektronikoak (2.000 ordu)
- Administrazio kudeaketa (1.300 ordu)
- Merkataritza (1.400 ordu)

Goi mailakoa

- Administrazioa eta finantzak (2.000 ordu)
- Sistema informatikoen administrazioa (2.000 ordu)
- Nazioarteko merkataritza (2.000 ordu)

LIHK (Lanbide Hastapenerako Ikastegia)

- Behe tentsioko instalazio elektroteknikoetarako langilea
- Elektromekanikoa
- Merkataritzako laguntzailea
- Bulegoko laguntzailea

INEMeko ikastaroak

Lanerako prestakuntzako ikastaroak

- Eusko Jaurlaritzak babestutako zentroa

Hobetuz

Datuak:

Lezamako Baserritarren Alkartea

-Kooperatibaren ganeko lehenengo datuak 1925. urtekoak dira

-112 bazkide

-Langile 2

San Isidro, Zamudio-Derioko Lur-langileen Etxea

-1921. urtean sortu zan

-160 bazkide

-Hiru langile

Loiuko nekazarien eta ganaduzainen Kooperatiba

-Dala 100 urte inguru sortu zan

-83 bazkide

-Langile bi

elektrikoak... Edozein merkataritza-gunetan topa daikeguzan gauzak dira, baina kooperatibetan askoz merkeago saltzen dabez.

Zerbitzuak be, mota askotakoak emoten deusiez bezeroari. Holan, albaitaria dago Derioko kooperatiban eta orain dala gitxi arte ganaduentzako botikak izan dabez. Joseba Lekerika bertoko presidenteak azaldu deuskun moduan, oso zaila da botika horreek farmazietan aurkitzea. "Kontrol haundia eroan behar da, eta hamabost egunik behin Gasteizeko Federazioko teknikari bat etortzen jakun inbentarioa-eta egitera. Hasiera baten dirulaguntza bat genduan zerbitzu horretarako, baina ken-

du eben eta zerbitzua emoteari itxi geuntzan dirutza gastatu behar gendulako".

Lezamako kooperatiban be albaitariak izan dira urteetan. Gaur egun kontsulta ez dabe han, baina edozein bezerok animaliak azazoren bat izan ezker, eurak deitu eta atoan ailegatzan dira. Landareen edo fruta-arbolen gaixotasunei jagokenez, beste horrenbeste gertatzan da. "Lorrako teknikari batek astean lau ordu emoten zituen lehen berton", aitatu dau Arantza Zarate kooperatibaren idazkariak, "Zalantzak doguzanean, Lorrara deitu, eta argitzen deus-kuez momentuan. Baina beste teknikari bat etortzea gura dogu". Pentsuak be egiten dabez Lezaman, ganaduena, oiloena eta txarriena. "Baita idiena be, eta ez da erraza hori topatzan eta guk hemen dogu".

Kooperatibetako langileek ahalik eta gehien jakin behar dabe emoten dabilzan zerbitzuari buruz; hau da, landareen gaixotasunei, tratamenduei, pentsuei eta haziei buruz, besteak beste. Ikasi be asko ikastan dabe egunero: egiten dabezan kurtsoetan, teknikariengandik, kooperatibara etortzen diran baserritar eta bezeroengandik...

Lehen aitatu dogun moduan, lehenengo sektorea ez dago bere momenturik one-nean, eta etorkizunak zer ekarriko dauan ikusteko dago. Halan be, Txorierriko hiru kooperatibak ezin dira kexatu bezero-kopurua dala-eta. "Askok ortu txikia dabe. Badakizue, lau piper etxerako, lorategia... eta apur bat handik eta beste apur bat



Arantza Zarate, Lezama

hemendik aurrera jarraitzea lortzen dogu", dino Lekerikak. Bezeroak Txorierriatik ez eze hainbat lekutatik etortzen jakez: Bermeotik, Mungiatik, Bilbotik... Ganera, hiru kooperatiben arteko hartuemonara apartekoa da, eta batek ezin badeutso bezeroaren beharrianari erantzuna emon, bestera agintzen dau.

40 urteko atzerapena

Pentsuen arazoa beste kontu bat da. "Salmentak %40 inguru egin dau behera. Buru asko dabezenek zuzenean erosten deuse hornitzaileei; baina, tira, oilo batzuk, txahalen bat... dabenak be bada-

“Baserritarra
autonomo izatea
lortu behar dogu”

“Handik eta
hemendik bilduz aurrera
jarraitzea lortzen da”



ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO

Programak eta Webguneak

zeure neurrira eginda



erabakiak hartzen
lagunduko dizugu

Tel/Fax: 94 656 99 03/01
www.leinak.com

40196 LEZAMA. BIZKAIA

EXCAVACIONES
AZURMENDI

epelarp@excavacionesazurmendi.com



MOBIL: 649 102 122

Tel/Fax: 944 554 150

Peluquería
Estética

Barrio de Polvorinos y Estación



tlf. 94 455 81 44

Angulo 2 bajo Larrabetzu - Vizcaya

goz, eta diru-jario horrek laguntzen deusku".

Erregaiaren prezioaren igoerak pen-
tsuen prezioa garestitu egin dau: ia %40-
50. Loiuko kooperatiban esandakoaren
arabera, faktore horri beste bi gehitu
behar jakoz. Alde batetik, berton ekoiz-
ten dan gari gehiena Asiara esportatzen
da, eta, ondorioz, prezioa garestitu egi-
ten da hemengo baserritarrentzat, gitxi
gelditzen dalako. Gariaren esportazioak
beste ondorio latz bat dakar ganaduzai-
nentzat: ia ez dagoala labore horren deri-
baturik; birzaia eta salbatua, esate bate-
rako. Beste alde batetik, ez dogu lur
nahikorik artoa landatzeko eta atzeritik
ekartzea garestia da. "Ganadu gitxi dago
eta, ganera, ez dago zegas elikatzerik.
Beno, nire ustez, badago. Araban gari na-
hikoa dabe Euskal Herri osorako, baina
arazoa esportatzen dabela da. Agintari-
ek bertoko baserritarren beharrianak bete-
tzen ahalegindu beharko leukie; lehenta-

“Pentsuen
prezioa ia
%40-50 igo da”

“Araban badago gari
nahikoa Euskal
Herri osorako; arazoa
esportatzen dabela da”

suna guri emon. Eta bitartekariak be-
kendu beharko litzatekez, dirua eurek
eroaten dabelako”.

Negozioa erosketetan dagoala argi
dau Lekerikak. Bere ustez, kooperatibek
erosketak batera egin beharko leukiez
prezio lehiakorrek eskaini ahal izateko.
Eta inoiz horrela izateko esperantza dau,
Lorra Bizkaiko Nekazarien Kooperatiben
Elkarteagaz batera aukera hori aztertzen
dabilz. “Berrogei urteko atzerapena da-
roagu Europako beste kooperatiben al-
dean. Holandan, esate baterako, lehen
mailako makrokooperatibak sortu da-
bez, eta zerbitzu hobeak eskaintzeko gai-
tasuna lortu dabe. Indar gehiago egiten
dabe alkarregaz”.

Gero eta zorrotzagoak

Legeria eta nazioarteko arauak gero
eta zorrotzagoak dira kooperatibakaz.



Zaindariaren Eguna ospatuko dabe

San Isidro baserritarren zaindaria da,
eta, urtero bezala, Txorierriko koope-
ratibek jai haundia egingo dabe
horren omenez maiatzaren 15ean.
Bazkideak eta lagunak gonbidatuta
dagoz.

● Zamudio

–11:30: Mezea, Derioko San Isidro
elizan



–13:30: Buztarri bakarrek idi pro-
bak: Jose Luis Lopategiren idia
(Sondika), Jose Luis Zarragaren
idia (Erandio), 900 kiloko harria
–14:30: Bazkideen arteko bazkaria.
Trikitilariak

● Lezamako Baserritarren Alkartea

–12:00: Mezea, Andra Mari elizan
–13:00: Hiru buztarriko idi probak
Aretzaga anaiak (Lezama)
Angel Txertudi (Busturia)
Bittor Txertudi (Kortezubi)
–15:00: Bazkaria

● Loiuko nekazarien eta ganadu- zainen Kooperatiba

–Mezea
–Bazkaria



ASOCIACIONES AGRICOLAS Y GANADERAS DE BIZKAIA



BIZKAIKO NEKAZARI ETA ABELTZAINEN ELKARTEAK



LORRA S.COOP.

Bº GARAIOLTZA Nº 23

48.196 LEZAMA

TF: 94 455 50 63

FAX: 94 455 62 45

e-mail: lorra@lorra-cg.net

WEB: www.lorra-cg.net



Txitean-pitean joaten jake inspektoreen bat zein motatako artikuluak, lehengaiak, instalazioak, eta abar dabezan ikustera. Pentsua kooperatiban birrintzen da, eta zakuan xehetasun guztiak ipintzen dabez: nongoa dan, proteinen portzentajea, almidoia... "Informazioa hornitzaileak berak emoten deusku; osterantzean, Neiker laborategira eroaten dogu analizatzeraz". Euska Herriko Kooperatiben Elkartearen aholkulari juridiko batek laguntzen ditu hainbat tramite betetzen.

Arantzaren ustetan, betekizun horrek guztiak beharrezkoak dira; oinarritzko gauzetan, hain zuzen be. "Garrantzi haundia emoten deutsee fitosanitarioen kontrolari eta lan arriskuen prebentzioari. Kurtsoak egin doguz, izan be, langileok etengabeko birziklatzeari ekin behar deusagu".

Bitartean, salmentei eta bazkideen diru-ekarpenei esker aurrera egiten dabe Txorierriko kooperatibek. Inbertsiorik egin behar bada, Eusko Jaurlaritzatik edo Eu-

ropatik jasotzen dabe laguntza. Iaz sutea egon zen Lezamako kooperatiban eta gale-
ra handiak eragin ebazan. Aseguruak bere gain hartu ebazan triskantzak.

Batzuk beste batzuk baino optimismo haundiagoagaz dagoz begira etorkizunari, baina guztiek proiektu barriak dabez buruan. Holan, burdindegiko arloa handitu gura dabe Loiun, eta Foru Aldundiak fitosanitarioak biltzeko edukiontziak jarriko ditu Lezaman. Zamudioko kooperatiban beste eraikin bat altxatu nahi dabe, ongariak hobeto antolatzeko. Udalagaz harremanetan dagoz, horrek lursaila itxi deien.



Joseba Lekerika, Zamudio



“Kooperatibek baterako erosketak egin beharko leukiez prezio lehiakorrak eskaini ahal izateko”

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizarean atzean)
Telefona 94.453.64.13

ANTZERKIA

Maiatzak 23, barikua,
20:30etan

SEXO GRATIS
Kunka-rena

Surrera: 12 €

Maiatzak 9, barikua,
18:30etan

LOS ESTRAMBOTICOS
Arrigorriagako Nazioarteko
XII. Clown eta Pailasoen
Jaialdiko partaide

- 12 urte: 3 €
+ 12 urte: 5 €

salmenten salmenta

venta de entradas

hikunen postaren
Kulturaren eta
baita 944 310 310

en los cajeros de
autopagos de
vivienda 944 310 310

bbk

txarteldegian
ordu bat lehenago

EUSKAL ASTEA ZAMUDION 2008

ZAPATUA. MAIATZAK 24

10:30-DANTZA IKASTARO LABURRA
Aiko Taldea. Eskoletan

20:30-GU TA GUTÁK
Dorretxean (doan)



BARIKUA. MAIATZAK 23

20:00-LAKRIKUN ANTZERKI TALDEA "GREBAN GAUDE"
Antzerkia. Dorretxean (doan)

21:30-KANTA-AFARIA
Galbarriatun
Bazkideak: 12 euro
Ez bazkideak: 15 euro



DOMEKA. MAIATZAK 25

9:00-IX. MENDI IBILALDIA
Zamudio ezağutu. Plazatik hasita

12:30-HERRIKO TXAKOLINEN DASTATZEA.
BERTOKO TRIKITILARIAK
Plazan

18:00-PIRRITX ETA PORROTX "ESKERRIK ASKO"
Kiroldagian (5 euro)
Herriko komertzioetan salgai, maiatzaren 12tik aurrera:

- ✓ Estankoan
- ✓ Marielinean
- ✓ Liburudendan
- ✓ Lohitzunen



ASTELEHENA. MAIATZAK 26

20:00-KURDISTAN.
Igor Urrutikoetxea eta Alex Azpiri
Hitzaldia. Dorretxean (doan)

Jesus Lagunas, kultura zinegotzia



“Egun bakoitzak badu bere xarma”

Derioko Udala eta herriko kultura eta kirol taldeak gogotsu ibili dira San Isidro jaiak prestatzen. Maiatzaren 15etik 18ra bitartean, makina bat ekitaldi egongo dira derioztar eta txorieritar guztientzat: kontzertuak, tailerrak, txapelketak, azoka, kalejirak... Baina ohiko ekitaldiez gainera, nobedadeak ere ekarriko dizkigute aurtengo jaiek. Jesus Lagunas kultura zinegotziak zehaztasunak eman dizkigu.

Testua: Itxaso Marina

Jai egitaraua Udalaren eta herriko taldeen artean antolatu da. Ezinbestekoa duzue taldeen laguntza, ezta?

Bai. Derio kultura eta kirol talde asko daude, zorionez, eta Udalak oso garrantzitsutzat jotzen du haien laguntza. Gainera, aipatu beharra dago herriko jaietan ez ezik urte osoan ere antolatzen dituztela hainbat ekitaldi, eta hori oso aberasgarria da. Egia da elkarte batzuek jaietan ez dutela ekitaldirik antolatzen, baina prest daude beti besteoi laguntza emateko.

Pregoa oso berezia izango da aurtent...

Derio eta Txorierriko beste herri batzuk orain 25 urte banandu ziren Bilbotik, eta pregoia banantzeaz arduratu zen batzordeak irakurtzea pentsatu dugu.

Nobedaderik, egitarauari dagokionez?

Eguenean trikimako tailerra izango dugu lehenengo aldiz haur parkean, eta domekako azokan txahal bat prestatuko da bertan jateko. Erakustaldi bat egingo da antzinako zerratokien funtzionamendua azaltzeko.

Txosnak pilotalekuaren osteko kalean ipiniko ditugu, han leku zabalagoa dagoelako kontzertuak egiteko, eta orain arte kontzertuak egin diren aparkalekuan barrakak jarriko dira.

Iaz jaiak herriko txoko guztietara zabaltzen ahalegindu zineten, eta eszenatoki berri bi prestatu zenituzten...

Baina ez zen ondo atera. Derio ez da herri handia, eta, ekitaldiak hainbat lekutan egin beharrean, hobe da hiruzpalau eszenatoki jarri eta jendea haietara joango dela ziurtatzea. Ekitaldiak gune hauetan egingo dira aurtent: Udaletxeko Plaza, txosnen eremua, eskola eta oinezkoentzako eremua.

Zein izango da ekitaldirik erakarga-

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Leialdeko, 2 - Telefono: 94 454 2946
DERIO - BIZKAIA

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK

Ugaldeguren I ind., 18-B nahca
48160 DERIO (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

DERIO FRUTADENDA

Sollube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

ARRATE
Edertasuna • Osasuna • Ongizatea

Zoraguz eta gorpuzko-antzemenduz,
Espozituz,
Mamigara eta profilguz

Txoriñi Tardioa, 9 - Irujoa/Txoriñi, 41 - 48100 DERIO - Telefonoa: 94 454 15 37 - Buzkila: 48100 DERIO

ADARVE KAFETEGIA

Especialitatea:
gizakiak
plater konbinatuak
pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO
TEL: 94 605 95 31

aldeckone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unitate 7, nahca
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak
zentro bakar batean
—Aurkitutako doan

—Especialitateak:
umekak



Jai-egitaraua



• Maiatzak 15, eguena

11:30-14:00: Haur-parkea
11:30-14:00: Ardo dastaketa Sollube kalean, ostalarien elkartearen eskutik.
12:00: Gazteentzako ekitaldiak Mikel Deuna plazan: skate pista eta akuilu-makui-luak.
12:30: Marrazki txapelketa, Odol Argia elkartek antolatuta.
16:30-19:30: Haur-parkea.
17:00: Umeentzako herri kirolak eta jolasak probalekuaren ondoan, Kulki taldearen eskutik.
18:00: Marrazki txapelketaren sari banaketa.
19:00: Idi-probak.

• Maiatzak 16, barikua

11:00-14:00: Haur-parkea.
16:00-19:00: Haur-parkea.
19:30: Konpartsen jaitiera eta txapelketa, fanfarre batek eta Iruñeko erraldoiek giro-tuta.
20:30: Pregoia, txupinazoa eta txitxi-burrunzia.
21:00: Eskupilota partida profesionalak.
22:30: Kontzertuak, Almazene kalean: Betagarri, Etsaiak eta Triki-zio. Tximintx eus-kara elkartearen eskutik.
23:00: Tamsna perkusio taldea, oinezkoen kalean.

• Maiatzak 17, zapatua

10:00: Diana txistulariekin.
10:00-13:00: Argazki Rallya, Derioko Argazki Taldeak antolatuta.
11:30: Umeei zuzendutako kultura arteko tailerrak, Sollube kalean.
13:30: Ipuin kontalaria, Sollube kalean.
18:00: Dantzak, Lainomendi taldearen eskutik.
19:00: II. Gazte Topaketak 'Cemenderio' Idorsolo kalean, Santzoka elkartek antolatuta.
19:30: El Negro y el flaco konpainiaren *Alquimia* espektakulua, Sollube kalean.
20:00: Abesbatza kontzertua San Isidro elizan, Ipar-Alde abesbatzak antolatuta.
22:30: Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna, oinezkoen aldean.
23:30: Berbena, Almazene kalean: Aker-beltz.

Diskoteka.

• Maiatzak 18, domeka

08:00: Ibilaldi neurtua herriko plazan, Untza mendi taldeak antolatuta.
09:00: Umeentzako ibilaldi neurtua.
09:30-11:00: Sukalki Eguna, Ipar-Alde abesbatzaren eskutik.
10:00: Diana txistulariekin.
10:30-14:30: Elikagai eta eskulan tailerren azoka.
12:30: Taekwondo erakustaldia kiroldegian, Doyan Gimnasioak antolatuta.
17:00: Ibilaldi neurtuaren sari banaketa.
18:00: Sukalki, briska eta konpartsa lehia-ketaren sari banaketa.
Jai-amaiera, dantza eta txokolatada
Ekitaldi guztiak, bertan aipatzen diren lekuetakoak izan ezik, Herriko Plazan izango dira (euria egiten badu, kiroldegian).





Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx



UNIBESKO "OT" SARRA
KALITASUN-ERAKIN
KALITATZARU



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Txori Herri Etorbidea, 28
Telefonoa 944 711 319
Faxa 944 533 540
48150 Sondika / Bizkaia

Euskal Herria, 1
Telefonoa 944 543 682
Faxa 944 541 612
48160 Derio / Bizkaia

Derioko jaiak



**Ondo pasa
Derioko
jaietan!**

**Lainomendi 18 urtez jarraian Derioko
Isidro Deuna jaietan dantza egiten.
Aurten ere maiatzaren 17an arratsaldeko
6etan herriko plazan elkar ikusiko dugu.**



Derio
Derioko Udala

Cafeteria

pozgarri
Hamburgueseria



Sandwichak
Hamburguesak
Plater konbinatuak
Gosariak
Urdaiazpiko iberikoa

Tel.: 94 454 3599
Gernikako Arbolak, 4 - 48160 DERIO

Kolixa Plaza, 2 - 4ºD
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel.: 944 54 27 19

ESTUDIOS

Pakearen Plaza, 3-behea
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel.: 944 54 50 13

IKASTEGIA

BASKOLAN
S.L.L.
terrazas construcciones

**Fatxadak, teilatuak,
terrazak eta patioak
konpontzea eta irazgaitzak egitea**

Txozna pol., 2. pabillola
Idortola, 5
48160 DERIO (Bizkaia)
E-maila: baskolan@hotmail.com

Tel.: 94 454 26 83
Tel. eta Faxa: 94 454 38 13

electricidad derio elektrizitatea
Kontrol elektrikoak • Instalazioak • Mantentzeak

Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta

Azkenetik Kalea, 1 • Tel.: / Fax: 94 454 31 45 - 48160 DERIO (Bizkaia)

desira
Bikotzeak eta Ongizate Zentroa

Edertasun eta Ongizate Zentroa
Urbe kalea 6. zenbakia, eskumako lorja
DERIO
Telefonoa: 94 454 55 73

eleizaldę
kafetegia

Lainomendi, 7
(Utzaren aurrean)

48160 DERIO (Bizkaia)
Telefonoa: 94 454 52 88

**Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53

48160 DERIO

Derioko jaiak

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNIZALDE ETORBIDEA, 2
TELFOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
elortzeagaitik



**LEIRE BECOSA
ILEAPAINDEGIA**

UNISEN ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA
LASER-DEPILAZIOA

Mungialde etorbidea, 2010 BKO
T: 94 454 26 52



LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gelak, etxeak, enpresak
Auzokor konpainiak
Mantamatu jabi-erakleak
Makelak, olio-lakak
Urtan amonak garbitzeki
Isantzeki
Zahar bitak

Rexaile Plaza, 1 - Bº Aldikora
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93



**MAPFRE
DERIO**
Goiko Mapfre ena

Haberren plaza 1/1a
48160 Derio Bizkaia
T + 94 454 85 90
F + 94 454 41 92
mapfre@mapfre.com



lurrindegia MAMEN mertzeria

Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25



**multiprecio
Rakel**

Gorka, 11 beheko - 48160 DERIO
Sokaleko telefonoa: 665 70 28 35



OPTICA MODERNA

Erdiko, 4 - 48160 DERIO - Telefonoa 94 454 37 99



Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak

OPORTUNITATEA: HERRIKO SUKALDEAK
GURE SUKALDEAK
GURE SUKALDEAK
GURE SUKALDEAK
GURE SUKALDEAK



Janitz
DINETAKOAK - OLAGARRAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(sarrera Goiko Kaletik)
Tfnoa.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)



HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pelaezeta Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefonoa: 944 543 705

Albaitaritza HENAR ORTUONDO
ALBAILARIS

Mel Plaza Plaza
Tfnoa: 94 454 38 71
(48160 DERIO (Bizkaia))

DERIO LARRIAITIAK 24 orduak
Tfnoa: 94 454 38 71 Alameda 1993



dribbling sport

KIDUEKIMENDUAK
FUTBOLA - GAKIDALDIA
ATI ETORRUA - GIMNASIA
HOKI BOLA - KIDUEKIMENDUAK
GAKIDALDIA - DOMINAK
KIDUEKIMENDUAK

AIZKORTI KALCA, 1
TELEFONOA: 94 454 10 01
48160 - DERIO (Bizkaia)



ARANTZA AMONDARAIN LASA
GINEKOLOGOA

San Martin bide 11, 4. 415
E. amondarain@euskalnet.net

48160 DERIO
Tfnoa/Fax: 94 454 44 06



Herriko Plaza, 1
Tel.: 945 089 509

48160 DERIO
Bizkaia

Nahikari
Biltzorgia • Erloju-denda

Tel.: 945 089 509
G. amondarain@euskalnet.net



Ondo pasa jaietan!!!



Derio

Zurekin Aurrera!



ZAINDUZ
SUZTEK ALBILAKA

-Odontologia orokorra
-Ortodontia
(umak eta haiduak)
-Periodontia
-Hizkuntza funtzioetan
aberratu den plasmu
-Hortz estetikak
(zuriketa, piercing...)
-Hortz jantze eta berriketa

**Jesus Enrique
Lopez Hidalgo**
Odontologo

15 odo kalea 2. beheko (Jauregi Pello 40)
Tfno./Fax: 94 454 01 01 - e-mail: elizalde@elizalde.net - 48160 DERIO (Bizkaia)

**MODA
INFANTIL**

Tximeleta

Garmikoa Arbelu, 8
Telefona: 94 454 11 35
Fax: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Jaietxea SAN ISIDRO

FISKO OKI ETAN ESPEZIALIZATUA ETA FINKO-GOGOGINETZA APURTU

ESKONTZAK, BATAJOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzuak - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki hunkituean 180 tuki - Sakalderitza tradizionalea

Telefona: 94 454 27 25
Fax: 94 454 14 18

Mungaiak elizbidea, 25
48160 DERIO

FÁBRICA DE ARMARIOS

CAPAPE

Interiores personalizados

Armarios japoneses

www.armarioscapape.com

Especialistas en reserir
interiores de armarios
con aprovechamiento
100% del espacio

Armarios a juego de
dormitorios con diversos
armarios y sistemas
de apertura

Exposición BILBAO:
Gordien, 39
Tel. y fax: 94 421 57 87

Fábrica/Exposición DERIO:
Pol. Txosna, Idorsola kalea 5, mod. 4
Tel.: 94 406 49 55 / Fax: 94 406 49 42

**ZIRIKADA
JATETXE**

94 454 5045

Gaztelumendi Plaza, 1
48160 DERIO

Jai zortentsuak!

Liliak Loradenda

Erdiko kalea, 2
Telefona: 94 454 18 83

48016 DERIO
Mobila: 657 29 75 98

Txepetxa aek-euskaltegia
(euskaltegia euskaltegia)

**Ondo pasa jaietan
Eutsi euskaraz berba
egiteko konpromisoari**

Corbasa kalea, 5
48160 DERIO
Tel. 94 543 067

aek

**inmobiliaria
bilbao**

Aralar kalea, 2 beheko
Tfno./Fax: 94 454 10 94
Mobila: 620 223 200

48160 DERIO
(Bizkaia)

Unai Garitagoitia Zuluaga. Deustun jaio, eta Derion bizi da gaur egun. Bulego baten lan egin arren, denbora asko emoten dau txoriei adi, izan be Lanius Bilboko ornitologia alkartearen kidea da. Unaik argi dauka Txorierriko txori kopurua beherantz doala eraikuntzak zabaltzen diran neurrian.

Testua: Bestorrene

“Txepetxa e

Noiztik zaletasun hori?

Betidanik izan dot txorietarako zaletasuna. Aitak, oraindino dodazan prismatikoak, oparitu eustazan txikia nintzala. Gaztaroan itxi eta orain dala bost urte ekin neutsan barriro. Lanius alkartean sartu eta eurakaz nabil.

Asko zarie zaletasun hori dozuenok?

Jente pilo batek dau natura eta txorietarako zaletasuna, baina alkarte bateko kide diranak gitxi dagoz. Alkartean 25 bat lagun bagara be, gitxi gara mugitzen garenak. Baina, gero, Interneten zein liburutegietan kontsulta asko egiten dira txorien inguruan. Siberiatik Indiara migratzen dan txori bat Lamiakon agertu zan orain dala gitxi. Harrigarria izan zan, bertara leku askotako ehundaka zale hurbildu ginan-eta. Esan beharra dago txoria topatzen lehena derioztar bat izan zala; oso txorizalea da bera be.

Zergaitik txoriak?

Natura gustatzen jatzu, erakartzen zaitu... eta naturan errazen ikusten diran animaliak txoriak dira. Horrezaz ganera, espezie ugari dagoz. Txorierritik buelta bat emonez gero, 20-30 ezberdin topa daitekez. Eta joko bat balitz bezala da: artatxoria ikusten dozu, baina ondo erreparatzen badeutsazu, artatxori arrunta ez dala konturatzen zara. Marrak, lumak... ondo begiratu behar dira.

Zer egiten dozue Laniusean?

Zentsuak, txoriak zenbatu... Hori programa zientifiko bati jarraituz egin behar da. Urteerak be antolatzen doguz: Urdaibaira, Abrara, Gorbeia, Santoñara, Doñanara... Beste alde batetik, SEO Estatuko alkartearen lan batzuk koordinatu doguz Biz-



Información
y
Traducciones

- Inglesko mollo guzietan
- Eskututik ingurumenari
- Cambridge Unibertsitateko azterketak prestatuta, EOL...
- Bulegoaren lanak eta zibiletan

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 61 69

Erremonteri 16
48150 SONDIKA
T: 94 451 61 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com



AUXI
Zentro Mediko Estetikoa

Osoano, 1, Iorja 48150 Sondika
Tel: 94 471 03 04 / 671 00 26 66
auxi@telefonica.net



biok
DISEINUA | CREANDO ESPACIOS



- eraikin proiektuak
(berrikuntza, lokalak, etxebizitzak, unibertsitateak eta bulegoak)
- berrikuntza integralak
(etxebizitzak, bulegoak, merkataritza lokalak, egoitza etxeak... gremio guztiak)
- hirigintza eta obra zibil proiektuak
- 3D modelaketak (infografiak)

beko kalea, s/n 48100 MUNGIA (Bizkaia)
www.biokdiseinua.com @biokdiseinua

tl./ fax: 94 655 70 36
sakelako tl.: 615 744 637

ez da bertoko txoririk txikiena”

kaian, eta Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako lantxoren bat be egin dogu. Taldekide batzuek publikazioak argitaratzen dabez euren kabuz –*Urdaibai*, esate baterako-, eta alkarteak *Urtekari ornitologikoa* plazaratzen dau.

Zelango teknika erabiltzen dozue behaketak egiteko?

Pertsonen eta lekuen arabera izaten da hori: batzuek gurago dabe leku baten gelditu txorien zain; eta beste batzuek, txorien bila joan. Hasieran prismatikoak erabiltzen genduzan; eta orain, lurreko teleskopioa. Argazki kamara ona eta objektibo garestiak behar dira argazkiak ateratzeko. Dena dela, teleskopioko okularrean jartzen diran kamera digitalak atera dabez merkatura, eta gero eta argazki hobeak egiten dira.

Osasuntsu dagoz txoriak Bizkaian?

Txori bakoitzak bere habitata dau, eta hori desagertzen dan heinean txoria be desa-

gertuko da. Gero eta eraikin gehiago altxatzen dabilz, lur-zorua gitxitzen doa... eta horrek guztiak eragina dau. Adibidez, Europan enara-populazioa gutxitzen doa. Baina, ostera, enara antzeko beste espezie batzuk gorantz doaz.

Eta Txorierrin?

Nahiko egoera ona euki dogu orain dala gitxi arte, baina, bertora bizi izatera etorri nintzanean hegazti-populazio haundiagoa egoan; harrapari gehiago, adibidez. Teknologiarik Parkea be asko haunditu egin da, eta han berdea egon arren, ez da gauza bera; ez da natura. Pinudi asko dagoz, eta txori mota batzuk zuhaitz horreetara ondo maldatzen badira be, baso horreek ez dira batere naturalak. Eukalitadiak be ez dira habitat egokiak... Hariztiak eta landak oso leku aproposak dira txoriak bertan bizi izateko, baina Txorierrin haresti gitxi doguz eta landak be gero eta gitxiago dau-

“Txorierritik buelta bat emonez gero, 20-30 txori mota ezberdin topa daikeguz”

kaguz.

Zaila da txepetxak ikustea?

Ez, Berreaga mendi lerroan txepetx asko ikus daitezke. Neguko atlasa egiten ibili nintzanean, txepetxak ikustea oso erraza dala konprobatu neban. Txori horrek urte osoa emoten dau berton. Baina ez da inguruko txoririk txikiena; beste bat dago: erregetxoa.

Araba-zozok oihartzun haundia izan da be komunikabideetan...

Hirietan tenperatura gradu pare bat altuagoa dala ikasi dabe, gainera hirietan ez dago harraparik, eta gustatzen jake han biltzea. Horrek enbarazua sortzen deusku; edozelan be, neguko arazoa da bakarrik. Eta egiten dabilzanak ez dot uste arazoa konponduko dauanik. Izan be, belatzak erabiltzen dabilz, eta, holan, txoriak lekuz aldatzea baino ez dabe lortuko. Ez dauka konponketa errazik. Azkenean ohituko gara, usokein bezala.

Zelan konpontzen zarie ehiztariakaz?

Ondo ez. Indar handia dabe Txorierrin eta Bizkaian. Batzuek mendia euren dala uste dabe, inork baino eskubide gehiago dabela. Dana dala, euren artean mota bi bereizi behar doguz: ehiztariak, hau da, errespeta erakutsi eta legeak betetzen dabezanak; eta “eskopeteroak”.



Hotel Tryp Sondika



Ezkentzak

OSPATU ZEURE EGUNIK
BEREZIENA GUREKIN

Jaun hartzeak



TRYP

HOTELES

Carretera de la Avanzada, 2-4 • SONDIKA - 48150

Tel: (34) 94 530052 • Fax: (34) 94 4530620

E-mail: tryp.sondika@solmella.com

Bizkaiko Bertsozale Alkartek hamar urte daroaz bertsozalaritza eskola emoten Txorierriko herri ikastetxeetan. Egitasmo hori irakaskuntza arautuaren barruan dago, eta aurtengo ikasturtean 115 ikasle murgildu dituzte bertso munduan.

“Gure helburua bertsolaritza zer den gazttxoei erakustea da; eta bide batez zaleak egitea”, azaldu deusku Arantza Plaza irakasleak. Bertsolaritza eskola lehen hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleei zuzendutako proiektua da, eta, ikastetxearen arabera, astean behin edo aste birik behin emoten dabe. Ikasleek bertsolaritzaren ganeko hainbat kontu ikasten dabe, bertsolari ospetsuen bizitza eta beharra, teknika... eta euren produkzio txikia be egiten dabe: koplak txikiak, zortziko txikiak, eta abar. Halandaze be, ez dabe bat-batekotasuna lantzen; hori DBHko ikasleentzako pro-

“Bertsolaritzaz gozatu ahal dogu, eta une askotan erabil daitekeen instrumentua da: bertsoa egin, eta ikastetxean kanta daikegu, lagun bati idatz deikeogu zorionak emoteko... Aukera horreetaz guztiez gaztetxoak ohartzea nahi dogu”. Baten bat bertsolaritzako gaitasuna daua sumatuz gero, bertso eskolara bideratzen dau, eta bide hori jarraitzea animatu.

Irakaskuntza arautuaren barruan egon arren, bertsolaritza eskolak ez dau beste ikasgaiek daben garrantzia akademikorik. Hau da, ikasleek ez dabe azter-



harategia - urdaitegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA



Mikel Deuna, 7 * DIFRIO 48160 * T: 451 52 94



“ *Helburua bertsolaritza
zer den gatzetxoei
erakustea da; eta bide
batez zaleak egitea* **”**

“Modu umoretsu edo
dotore baten neurtzeko,
errimatzeko eta
kantatzeko gauza
dirala ikusten dabe”

“ Jakin-mina eta
zaletasuna pizte
hutsagaz pozten gara **”**

Urtean zehar be ekintza ezberdinak antolatzen dira klase barruan. Arantzak musikari bat gonbidatzen dau eskolara eta



Euskararen presentzia eta erabilera ezberdinak dira herri bakoitzean. Euskal ohiturek eta kulturak ez dabe indar berbera herri guztietan. Bertsolaritzari jagokonez, gaztetxoek eduki daikiezan gabeziak bete nahi ditu Bertsozale Alkarteak. "Jakin-mina eta zaletasuna pizte hutsagaz poztzen gara gu. Baina, ganera, bertsolaririk sortzen bada, ondo baino hobeto".

BAR RAFI
ESPECIALTATEA: PINTXOAK
Rafael Garcia Tejero

C/le Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Biscaya)

T: 94 406 08 08
Móvil: 607 408 813

Patxi S.KOOP.
WWW.PATXI.COOP
www.patxi.coop

8460400 (telefono) 493 117 78 00
Nº1 N°10 pol. - Etxebarri kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
E+ U+ (94 497 78 00)
patxi.coop@patxi.coop
www.patxi.coop

Mahout
SISTEMAS

h3i
informatica

TECNOLOGIA
h3i



Eguneko menua, asteburuko menu berezia,
karta, onpreson bazkariak, jaunartzeak,
familien bazkariak

Arizaga, 80
 /arratza-48110 (Ibañeta)
 Iruña - 94 452 14 39
 Fax: 94 452 26 29

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
EMPRESARAKO INFORMATIKA
SAREEN, MANTENIMENDUA
SERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinta 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA



EXPLOREMOS LA DIFERENCIA

94 452 1616
94 452 1646

Pol. Torrelagotín
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

BTXHTFGTA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lakretakari Laigada Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zeruzio (Bikaria)

Hizkuntza hobetzera joan dira Ingalaterrara

Derio, Lezama eta Larrabetzuko 27 lagunek osatutako talde bat Ingalaterran izan dira martxoan. Bidaia Ikasgela akademiak antolatu zuen eta ikasleek bertako hizkuntzarekin harreman estuagoa izatea zuen helburu. Turismoa egiteko ere aprobetxatu dute.

Edozein hizkuntza ikasten denean, oso inportantea da harekin harreman zuzena izatea. Eta sorlekura joatea biderik egokiena izaten da, zalantza barik. Hori dela-eta, bidaia antolatza animatu zen Ikasgela Larrabetzuko akademiako Olatz Amarika. "Hizkuntza nondik datorren jakitea ezinbestekoa da. Halako ekimenak ondo baino hobeto datozkie ikasleei, mintzamina lan ditzaten. Gainera, hobeto hitz egiten dutela igartzen zaie gero".



Baina ikasleak eta Olatz ez dira baka-rik ibili Ingalaterratik; umeen gurasoak eurekin joan dira. Txorierriko taldea lau urtetik 14 urtera bitarteko 12 umek eta 15 nagusik osatu dute.

Helburua bete du Olatzek. Irakasleak azaldu digun bezala, ikasleak ingelesez mintzatu dira, eta jateetxeetan afaria eskatzera edo dendetan erosketak egitera ausartu dira. "Eta oso ondo egin dute".

Euskalkiekin gertatzen den moduan, ingelesak ere baditu berezitasunak zonaldeen arabera. Baina talde txorierriarrak ez du inongo zailtasunik izan, bisitatu dituzten herrietan nahiko argi hitzegiten baitute. Ingalaterran bost egun baino ez dute eman. Egun gutxi izan dira; hala ere, hainbat leku ikusteko aukera eduki dute: London Eye, Buckingham Palace eta Covent Garden Londresen; King's College eta unibertsitatea Cambridgen; eta Bath hiria, esate baterako. Era berean, Christ Church College bisitatu zuten Oxforden. Azken bisita hori oso berezia izan da, Harry Potter filma han grabatu baitzen.

Esperientzia positiboa

Ikasleak zein nagusiak liluratuta etorri



dira bidaia-rik: alde batetik, pozik azaldu dira, ingelesez egiteko gai direla euren buruari frogatu diotelako; eta beste alde batetik, aho bete hortz bueltatu dira ikusi dituzten mirariengatik. "Oso hiri eta leku politak bisitatu ditugu. Egun gutxi izan direla esan didate, hurrengoan bidaia luzeagoa egin behar dugula". Ingelesen bizitza-erritmoak ere harritu egin ditu bisitariak. "Presaka dabilta ia egun osoan zehar: sandwicha esku batean dutela, eta euritakoa beste eskuan... Korrika metroa hartzera..."

Esperientzia positiboki baloratu dute ikasleek zein irakasleak. Ingelesa maila hobetu dutela erakusten hasi dira klasean, eta batzuek laster egingo duten azterketa gaindituko dutela ziur dago Olatz. Datorren urtean Edinburgo ezagutuko dute, beharbada.

Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Olatz Amarika

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaito Txakolina
Denominazio de Origena

• Etxeko
• Barrio
• Txakolina
• Txakolina

Geltolotza 30200, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Marín auzoa, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Faxa: (94) 452 11 46

FMC foret

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Enitidant

Menu buruzko informazioa • Eguraldiaren arabera
Itxeraren orduak • Jantokia eta kafea
Kokalekua • Jantokia

R/1 Galtolotza, 1 • Tfno. y fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

Club Hípico Aretxalde

Pony club • Zaldiak ibarotzek
Aisialdirako landak • Apeilo zerbitzua
Salto • Txangoak • Animalien heziketa

Telefonaia:
IBON - 659 90 75 88

Zamudio auzoa, 37 • 48196 LEZAMA

KIMKO Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Geltolotza 39 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAI)

GOXO-GOXO LOHIZUN

Amerikar zaldia
Ola egindako
Besteak ere

Consultas: Tfn
48196 LEZAMA
94 455 61 77
goxogoxolohizun@hotmail.com



Bertsozaleek euren lekua dute ziberespazioan

Zibertso ekimena jarri dute martxan *euskalTube.com* webgunean. Kanal berri horrek webgunean dauden bertsolaritzari buruzko bideo guztiak biltzea du helburu, eta dagoeneko plazaz plaza grabatutako hainbat saio, umorezko esketx eta bertsolariei egindako elkarrizketa igo dira bertara.

Horrezaz gainera, webguneko arduradunek Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian momentuz parte hartu ez duten bertsolariei ere taula zibernetikoa eskaini nahi diete. Erabiltzaileek, esate baterako, lagunartean grabatutako bertsok Zibertso kanalean eskegi ditzakete. Era berean, edozein bertsozalek edo bertsolarik botatutako bertsoari erantzuteko aukera izango dute.

EuskalTube-n bertsotan hasteko beharrezkoa da webgunean erregistratzea. Ondoren, izena emateko erabili duzun posta helbidean berrespen mezua jasoko duzu. Mezuan agertzen den loturan klik egin behar da erregistroa amaitzeko. *EuskalTube.com/zibertso* helbidean sartu eta "izan taldekide" loturan klikatu be-

harko duzu Zibertso kanaleko kide izateko.


Bertso asko eskegi dira dagoeneko *euskalTube*-n, baina hemendik aurrera bertsok gero eta presentzia nabarmenagoa izatea nahi dute webguneko ardura-dunek.

Gai-jartzailearen garrantzia

Duda barik, gai-jartzailea ezinbesteko elementua da bertso-saioan; hala ere, informazio gutxi dago horrek egiten duen lanari buruz. Unai Elizasu gai-jartzaileak *www.gaijartzailea.com* webgunea zabaldu du hutsune hori betetzeko asmoz.

Elizasuk urteetan bildutako ezagutza eta eskarmentua ezagutzera eman ditu blogean, jendearentzat lagungarria izan litekeelakoan. Bloga iritziak trukatzeko lekua ere izango da, eta bertan jendearen kezak eta usteak bilduko dira.

Beste alde batetik, txapelketetako gaiak ere jasoko ditu blogean. Material hori guztiz baliagarria izango da bertso-eskoletarako.



“Encore”, musika ikasteko eta erakusteko erremintea

Partiturak editatzeko programak dira. Tes-tuak idazteko programak (*OpenOffice Writer, Word, WordPad, WordPerfect...*) egiten daben antzera, beste honeek musika idazteko balio dabe. Baina hori baino ge-hiago, idazten dana joteko kapaz dira “play” ko-mandoari sakatuz. Hizkuntza musikala paperean idazteko eta “joteko” pentsatuta, edozein musika mota argitaratu daiteke programokaz, melodia sinple bat zein orkestrarako partitura konplexuak, instru-mentu guztietakoak, gitarrarako tabula-tuak, abestien hitzak, perkusiorakoak... Partitura-editoreek ez dira solfeo ikasteko derrigorrezkoak baina asko la-guntzen dabe lanak modu txukunean egiteko, gorde eta edozein momentutan erabili edo bialdu ahal izateko. Beste gauza asko be egiteko kapaz dira: instrumentu bateko melodiak beste batera pasatu, tonalitatea aldatu, MIDI fitxategiak onartu, akordeak egin, *particelak* editatu...

Askok dagoz eta, erabiltzailearen infor-matikan gertatzen dan moduan, hobeago-ak eta txarragoak, merkeagoak eta gares-tiagoak, erabiltzeko errazagoak ego gatax-goak, hizkuntza askotan..., aurkituko do-guz: *MusicTime, Finale, Amadeus, Sibelius, Opus...*

Guk Encore aukeratu dogu; munduan asko erabiltzen dalako, maila profesionale-an zein afizionatuan eta erabiltzeko erraze-netarikoa dalako. Maila guztietako musi-karientzat izan daiteke lagungarri. Azkarra eta zehatza da, 64 pentagramako partitura idazteko kapaza (informazio gehiagorako ikus <http://www.gvox.com/encore.php>).

Beethovenen sasoian ez egoan ordenadorerik eta musi-ka ederra egin eta idatzi zan. Gaur, egiten dan musika hori (maila guztietakoa) idazteko, ikasteko eta irakaste-ko teknologia barriak daukaguz, merkeak eta erabilte-rrazak.

Partitura eta testua: Pospolin



Honexek dira irudiko partituraren berbak. Irakurri edo abestu egizu, zeuk gura dozuna:

*“Zure begi ederrok, ene lastana,
katigatutik nabe, libre nintzana.*

*Pozik nago katigu zure kaiolan,
urtetan egongo nintzake holan.*

*Arbolarik arbola ibiltzen nintzan,
baina oin hemen nago zure kaiolan.*

*Nire kanta gozga entzun egizu,
neuk maite zaitudan lez maite nagizu.*

(Mikel Zarate)

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Garbea kalea, 6
Teléfono / Fax: 94 462 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

MARMOLERÍA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak

Torrelarragoti Ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel / Fax: 94 688 01 41 - 2

Merceria
Karmele

Txarierriko Barbidea, 7 ZAMUDIO T: 94 462 02 17

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz



Izarzako Auzo Eskola / SONDIKA, 1933

Orduko denporak gaur egunera ekarri doguz

Nori ez jako gustatzen joandako denborak gogoratzea? Zelangoak ginan antxinako argazkietan ikustea; senideak, lagunak... Goian Sondikako Izarza auzo eskolan 1933. urtean ateratako argazkia dozu. Ikasle batzuen izenak badakiguz; zuri faltan diranen barri emotea eskatzen deusugu. Baten bat ezagutzen badozu, edo gure datuak ez badira zuzenak, halan jakinarazotea eskertuko geunskizu. Nola? 944523447 telefono zenbakira deituz; aikortxori@yahoo.es helbidera idatziz edo www.aikor.com webgunearen bidez. Izen guztiak jakin ostean, barriro argitaratuko dogu argazkia.



1. Ambrosio Aburto
5. Luis Sanchez
7. Julian Bilbao
8. Tomas Barcena
10. Nicolas Ladislao
12. Ignacio Ladislao
13. Iñaki Etxebarria
15. Satur Arriaga
16. Isidoro Etxebarria
21. Anselmo Mentxaka
22. Jesus Sanchez
24. Nemesio Bilbao
25. Leandro Iruretagoiena
30. Pedro Latxaga
34. Jose Latxaga
35. Jose Atxaerandio
36. Anton Barcena
37. Ferran Bilbao
38. Doroteo Barcena
39. Jose Goiri
40. Tomas Bilbao
42. Imanol Etxebarria
43. Jose Mentxaka
44. Imanol Urkiaga
45. Ismael

“LAIA HOTEL MUSEOA”



Hidromasaje hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal

izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa Berri zentroak relax zirkuitu hau eskaitzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzi, dutxa inguratzaile eta infragorritzko ohea.

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Irabazlea:
Unai Gorrotxategi



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:
Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA
(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

**Zenbat urte bete
ditu Lainomendi
taldeak?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Bakoren bazterra

Beratze karbonikoa

Beste gauza batzuen artean, beratze karbonikoa duten 2007. urteko ardo beltzak dastatzeko proposamena egin nizuen aurreko alean. Horiek atera berri dira merkatura, eta prest ditugu euren usainaz eta freskotasunaz gozarazteko.

Beratze Karbonikoko teknika geure-geurea dugu, eta oraingo honetan sakonago ezagutzeko proposatzen diuzet.

Prozesua hasi ahal izateko, mahatsak osasuntsu eta osorik ailegatu behar du upelegira, prozesu mekanikoak saihestuz. Ondoren, mahats-mordoak osorik sartuko dira deposituetan. Pisuak eta mahatsak berak egiten duen presioaren eraginez, mahats-mordoaren beheko aldean dauden apurtu, eta hartzidura alkoholikoa hasten dute (oxigenoa desagertuz, eta CO₂a sortuz). Mahatsaren zelulek momentu horretan ekiten diote zelula arteko hartzidurari, gradu bi alkohol sortuz. Alkoholak mahats-aleak leherraraziko ditu. Jarraian ohiko hartzidura alkoholikoa sortuko da, zeinak muztio-ardoa orujoetatik bereizteko aukera emango baitigu. Muztio-ardoa hori orujoak prentsatu ostean lortzen den muztio-ardoarekin nahastu, eta depositu ezberdinetan hartzituko dira, azukreak alkohol bihurtzeko. Eta horrela lortuko dugu ohiko *eskilarapekoa* edo urteko ardoa. Fruta, kolore eta gozotasun handiko ardoa izango da, eta gutxienez urtebete iraungo du. On egin!



*Iñaki Suarez,
sumillerra*

Ettxeko sukaldaritza

Oilasko labean errea



*Maite Lekerika,
sukaldaria*

Osagaiak (lau laguntzat):

- Oilasko eder bat
- 4 berakatz atal
- Olio
- Gatza
- Edalontzi bat ardo zuri
- Aluminio-papera

Prestatzeko era:

Garbitu oilaskoa eta emon gatza. Igurtzi olio apur batez eta ipini lapiko baten. Txikitu berakatzak eta bota ganetik.

Estali oilasko aluminio-paperaz eta sartu laban 180 gradutan.

Handik hiru laurdenera busti ardauz eta estali barriro. Hogei minutu pasa ondoren, kendu papera eta noizean behin busti saltseaz.

Beharrezkoa bada, ur apur bat bota daiteke. Urre kolorea hartzen dauenean eta hazurra mugitzen danean, eginda dago.



**RESTAURANTE
JATETXE
AYRREGOITI**

Txiki: Fax: 94 453 24 40 / LAUROETA ETORRITZA, 27 / 48180 LOIU-Bakem
e-mail: ayrregoiti@txiki.es // www.restauranteyregoiti.com

Erremerleri kalea, 22
Telefonoa: 94 453 57 54
48150 SONDINA (Bizkai)
www.zerurena.com
e-mail: zerurena@zerurena.com

Zerurena Jatetxea

Iñaki Valladares
Osteopata eta masajista
R.O.P. -ekin lida

Quiro-Pharma
Osteopatia y Masaje

Milaka bidai 7 behar
48150 SONDINA

94 453 89 48

Ercoreca
supermerkatuak

Elikaduran adituak

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK

Ero

J. Martin

Suminaren estrategia

F. Morillo

Bidaia-rik iluzeenak

A. Iturbide

Ez da gaua begietara etortzen

E. Juaristi

HAUR ETA GAZTE

33+3 urte, Kontu kontari

Txotxongilo taldea

Fairy Oak, ahizpa bikien sekretua

E. gnone

Kensukeren mundua

M. Morpugo

Marrakitan blai

D. Nesquens

MUSIKA

Zure begiek

M. Markez

Apurtu arte

Etsaiak

Gene & jeans

Noa



DENBORA PASA

LETRAZOPA

F	R	G	I	Ñ	A	R	R	E	A	Z	T	G
S	G	F	X	H	E	N	I	D	E	K	U	G
U	A	T	D	U	T	H	Y	S	R	P	U	O
L	B	S	S	R	S	Ñ	B	N	E	M	F	P
F	E	T	K	X	U	T	G	S	B	Y	E	J
T	B	R	B	E	S	D	A	O	A	Ñ	L	H
Y	P	I	A	M	A	L	Z	X	Ñ	S	X	F
A	N	E	M	I	M	J	T	Ñ	A	B	I	I
E	O	J	D	R	S	E	D	O	K	K	J	E
H	Ñ	O	G	Y	R	I	M	E	K	Z	N	P
A	R	E	U	R	E	P	S	I	M	N	M	L
H	P	Z	U	K	N	X	M	J	L	Ñ	A	I

K	T	A	G	J	K	U	K	P	L	Y	X	P
P	A	H	R	D	P	Y	E	X	O	U	E	T
O	I	R	O	F	O	X	P	U	H	O	S	T
R	R	Y	D	G	T	Ñ	J	E	J	N	B	A
B	A	E	I	U	X	H	Z	G	M	E	N	N
T	P	N	S	Y	E	L	L	I	R	M	N	A
D	F	U	J	B	H	D	A	R	K	N	B	T
A	Z	S	Z	K	S	F	O	E	M	B	L	Ñ
O	K	A	R	A	N	A	I	A	U	Ñ	G	U
K	R	Ñ	A	R	L	E	G	Z	S	D	B	I
S	A	E	T	I	R	I	B	I	X	T	H	D
I	T	M	B	N	M	F	J	Z	E	N	F	H

Jarraitzen dogu gure landa eta basoetan. Ez dira arbolak, ezta bedarrak, erdiko tamaiña daukie. la gai zaren **7 baso landare izenak** aurkitzen* goiko letra-zopan. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoa.

Ezkerraldean **AIKOR!** 69. zenbakiaren erantzuna. zazpi landare izen.

EUSKAL HERRIKO d-GENERAZIOA

aribz eba nagei
sioari oeyo apirilaren 10a



Agenda

Antzerkia eta filmak

Loiu

–*Okamikako lamiak* umeentzako filma. Maiatzaren 14an, 17:30ean, liburutegian.

Derio

–*Modelo clowntrapublicitaria*, Virginia Imazen eskutik. Maiatzaren 9an, 20:30ean, Gurea Aretoan.

Zamudio

–*Hay que purgar a Totó* (Arriaga antzokia). Maiatzaren 8an, 20:00etan. Izena ematea: maiatzaren 6ra arte.

–*Cavalia* (Zorrozaurre). Maiatzaren 30ean 21:00etan. Izena ematea: maiatzaren 23ra arte.



Erakusketak

Derio

–Aeromodelismoaren erakustaldia, Su-byke klubak antolatuta. Maiatzaren 24an, 17:00etan, Seminarioan.

–Gimnastika erritmikoaren erakustaldia, Miragarri taldeak antolatuta. Maiatzaren 24an, 19:00etan, kiroldegian.

Larrabetzu

–‘El Museo del Prado visto por 12 artistas contemporáneos’. Maiatzaren 19tik 30era, Anguleri kultur etxean.

Hitzaldiak

Zamudio

–‘Mendekotasunaren, jarauntsien eta dibortzioen legea’, Olga Macia abokatuaren eskutik. Maiatzaren 6an, 17:00etan, Zamudiotarren. Lagunandre elkarteak antolatuta.

Irteerak

Zamudio

–Bizkargira. Maiatzaren 4an, Arroeta mendialdeak antolatuta.

Lezama

–Urbasara. Maiatzaren 18an, Urrusti mikelogia elkarteak antolatuta. Izena ematea: maiatzaren 16ra arte, liburutegian.

Larrabetzu

–Mairulegorreta kobazulora (Araba), maiatzaren 31an. Izena ematea: maiatzaren 16ra arte, liburutegian. Gazteentzako irteera.

–Lekeitiora, ekainaren 1ean. Izena ematea: maiatzaren 16ra arte, liburutegian.

Kirola

Sondika

–XX. Areto-futbol Txapelketaren finalaurrekoak eta finala. Maiatzaren 11an, 9:30ean, Goronda Beko kieldegian.

Derio

–Uribe Kostako Futbito Txapelketaren finalak, Arteaga FC-k antolatuta. Maiatzaren 10ean, 10:00etan, kiroldegian.

–Hiruko areto-futbola, Pozgarri FST-k antolatuta. Maiatzaren 13an, 19:00etan, kiroldegian.

–Esku-pilota III. Tokiko Opena, Atxiki taldeak antolatuta. Maiatzaren 23an, 16:00etan, frontoian.

–Frontenis II. Tokiko Txapelketaren finalak, Atxiki taldeak antolatuta. Maiatzaren 25ean, 12:00etan, frontoian.

Zamudion

–Plater-tiroketa. Maiatzaren 10ean, Teknologik Parkeko tiro-zelaian. Txorierri ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta.

Lehiaketak

Derio

–Briska Txapelketa, Sutondoan elkarteak antolatuta. Maiatzaren 5ean, 6an eta 7an, 17:00etan, Larrabarri baserrian.

–Xake Nazioarteko Opena, Xake taldeak antolatuta. Maiatzaren 25ean, 10:00etan, kiroldegian.

Musika

Loiu

–Udaberriko kontzertuak: Jarrilleros, Usan-soloko Orfeoia eta Txuma Olagüe. Maiatzaren 24an, 20:00etan, San Pedro elizan.

Derio

–Ipar-Alde eta Areosa (Galizia) abesbatzen kontzertua. Maiatzaren 2an, 19:30ean, Gurea Aretoan.

–Larrabetzuko Musika Eskolaren emanaldia. Maiatzaren 27an, 19:30ean, institutuan.

Tailerrak eta ikastaroak

Loiu

–Ipuin pedagogikoak. Maiatzaren 28an, 18:00etan, liburutegian.

Zamudio

–Txotxongiloak. Maiatzaren 31n, 11:30ean, liburutegian. Umeentzako tailerra.

–Ogi ikastaroa. Maiatzaren 22an, Larra-goiti txokoan. Izena ematea: maiatzaren 20a baino lehenago.

Larrabetzu

–Sendabelarrak eta prestakinak. Maiatzaren 14tik ekainaren 11ra, Goikoelexaldeko txokoan. Izena ematea: maiatzaren 5etik 9ra, liburutegian.

Bestelakoak

Sondika

–Lezaman izango den Nagusien Jaian izena ematea: maiatzaren 5etik 14ra, jubilatu etxean.

–‘Futbol-aretoa’ Argazki Txapelketaren sari ematea. Maiatzaren 11n, 12:30ean, Kultura Etxean.

–Aste Berdea. Maiatzaren 26tik 30era, Ludoiteka I eta II.n.

–Argazki Rallyaren sari ematea. Maiatzaren 18an, 11:30ean, Kultura Etxean.

Lezama

–Lehen sorospen ikastaroan izena ematea: maiatzaren 5etik 16ra, liburutegian.

–Basobaltz jai-batzordearen bilera (irekia). Maiatzaren 16an, 19:30ean, liburutegian.

Zamudio

–Lezaman izango den Nagusien Jaian izena ematea: maiatzaren 14ra arte, Adintsuen Etxean edo Udaletxean.

Larrabetzu

–Bizkargi Eguna, maiatzaren 3an eta 4an.

–Uda Txikian eta Gaztean izena ematea: maiatzaren 12tik 14ra, liburutegian.

–Lezaman izango den Nagusien Jaian izena ematea: maiatzaren 14ra arte, liburutegian.

–San Isidro. Maiatzaren 15ean, 10:30etik aurrera: kalejira, azoka, bazkaria, karta txapelketa, umeentzako herri kirolak...

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO


ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Tallerrak kafea. 5 ZAMUDIO
Tfnak: 94 452 12 73

Bocateria




otarteko Pizzeria

ETXETZ ETXETZ ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO TELF.: 9 44 52 11 42

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaritzaren, gure pertsonen inplikazioaren eta hobekuntza jarraikorraren bitartez, berrikuntza eta ingurumenarekiko errespetuarekin batera, Bikaintasuna etengabe bilatuz.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.





Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen
erraztasun
guztiekin eta
gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguru**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian